

Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua

Mikela Elizegi – Antonio Zavala



1/ Milla zortzirena irabazteko
emetzigarren urtea,
Asteasura logratu dute
misiyuak ekartzea,
ondorenean gogoratu zat
ejenplo on bat jartea,
onetarako zure bear naiz,
guziyon Jesus maitea.

2/ Mayatzaren ogei ta batean
asi zaizku misiyuak,
jakin ditugu nola diraden
guretzat kondiziyuak,
gure onerako izandu dira
orien esplikaziyuak,
indartsu, arren, egin nazala
diraden misiyuak.



hauspoa

Mikela Elizegi
Antonio Zavala

Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua

HAUSPOA LIBURUTEGIA

2

Elicegui, Mikela (1869-1967)

Pello Errotaren bitzita bere alabak kontatua / Mikela Elizegi ; [biltzailea], Antonio Zavala ; hitzaurreak, Bernardo Atxaga (edizio honetakoa), Antonio Zavala (aurrekoa, 1963koa) ; egokitzapena, Asun Garikano ; edizio-lanak, Pello Esnal. - 3. argit. (lehenengoa euskara batuan). - [S.l.] : Hauspoa ; Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2016.

144 or. : ir. ; 20 cm. - (Hauspoa Liburutegia ; 2)

Aurkibidea

LG SS 1003-2016. - ISBN 978-84-7907-754-9

1. Errota, Pello (1840-1919). I. Zavala, Antonio (1928-2009). II. Atxaga, Bernardo (1951-). III. Garikano, Asun (1962-). IV. Esnal, Pello (1950-). V. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes. VI. Izenburua. VII. Saila.

929 Errota, Pello

1. argitalpena: 1963 (Auspoa, 32)
2. argitalpena: 1992 (Auspoaren Sail Nagusia, 5)
3. argitalpena: 2016 (Hauspoa, 2)

HITZAURREAK

© *Edizio honetakoa*: Bernardo Atxaga.

© *1963koa*: Antonio Zavala.

TESTUA

© *Jatorrizkoa*: Mikela Elizegi, Antonio Zavala.

© *Egokitzapena*: Asun Garikano.

Edizio-lanak: Pello Esnal.

© *Edizio honena*: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hauspoa bildumaren diseinua: Javier Lopez Altuna.

Maketazioa: Imanol Tapia.

Marrazkiak (azalekoa eta barrukoak): Xabier Sagasta.

Argazkiak: Indalecio Ojanguren (14. or.), Pascual argazki-etxea (16. or.).

ISBN: 978-84-7907-754-9

Legezko Gordailua: SS-1003-2016

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Mikela Elizegi
Antonio Zavala

Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

Donostia, 2016

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| Hitzaurrea (Bernardo Atxaga) | 9 |
| Itzaurrea (Antonio Zavala) | 15 |
| Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua | 17 |
| Gure aitona-amonak | 19 |
| Senideak | 24 |
| Gure bizimodua | 25 |
| Gure idi Txikito | 30 |
| "Bejondeiala, mutil" | 32 |
| Karidadeko bentan | 34 |
| Karlisten gerratea (1872-1876) | 35 |
| Zakur amorratuen kontuak (1876) | 42 |
| Elizondora (1879)..... | 47 |
| Parte gaiztokoak | 49 |
| Konportako morroia | 54 |
| San Migel | 56 |
| Meza-dirua | 59 |
| "Larru gorrian..." | 64 |
| "Gizonari egiozue ondo" | 65 |
| Aiako apustua..... | 68 |
| Fidel Lizarraga..... | 70 |
| Villabonako jiboso bati..... | 72 |
| Astoaren pasadizoa..... | 73 |
| Bi tratulariri..... | 77 |
| Gure ahizpa Joxepa Iñaxi..... | 78 |
| Anaiaren soldaduska..... | 81 |
| Nire ezteietan (1893/10/14) | 83 |
| Ameriketara (1895)..... | 89 |
| Gure anaiaren ezkontza (1897) | 94 |
| Gure amaren heriotza (1897) | 98 |
| Hitzetik hortzera | 100 |
| Santa Ageda bezperan..... | 103 |
| Gure ahizpa Dolores (1881-1901) | 106 |
| Gaixorik..... | 111 |

| | |
|---|-----|
| Jendearen aurreko azken bertsoa | 114 |
| Herniora zihoazenei | 115 |
| Heriotza | 117 |
| | |
| Pello Errotak jarritako bertsoak bere alabaren argibideekin | 119 |
| Elizondora (1879)..... | 121 |
| “Nire guraso zaharrak” | 125 |
| Apustua | 126 |
| Laurkinen..... | 128 |
| Urnietako alkateari..... | 131 |
| Jose Joakin Korta | 132 |
| Beste bertso batzuk | 135 |
| | |
| Oharrak | 139 |

HITZAURREA

Behin batean, hamabiren bat urte nituela, banindoan bizikletan Zizurkilgo eskolara, eta adin handiko andre bat ikusi nuen errepidearen ertzean, aulki batean eserita. Gelditzeko keinua egin zidan bere paretik pasatzean, eta hizketan hasi zitzaidan. Zoragarri hitz egiten zuen andre hark, bizi eta zorrotz, jario atseginean; ondo aditzeko, berriz, tronpetatxo bat erabiltzen zuen, ni zerbait esaten hasi orduko belarrira eramaten zuena. Tresna hura harrigarria egin zitzaidan, eta agian horregatik daukat egokiera gogoan.

Andre hark Mikela Elizegi zuen izena, eta Pello Errota bertsolariaren alaba zen. Argitaratu berria zuen garaitsu hartan, 1963. urtean, gaur berriro aurkezten den *Pello Errotaren bizitza* izeneko testu honen lehen edizioa. Esan dezadan zehatzago: liburu hura, azal eta tamaina apalekoa, Mikela Elizegiri egindako magnetofono-grabazioen emaitza zen, aita Zavalak zuzendu eta antolatutakoa. Zavalak berak aitortua duenez, arratsalde asko eman zituen eginkizun horretan; arratsalde gozo samarrak, gainera. Ez bakarrik Mikela Elizegiren kontuak entrenigarri zitzaizkiolako, baita haren alabek pastelak ateratzen zizkiotelako ere.

Pentsa dezagun orain, tarte batez, zenbat esku beharko ziren liburu hura aurrera ateratzeko, noiz eta garairik okerreanean, diktaturapean, euskal kulturaren egoera sekula egon den mailarik baxuenean zegoenean. Aita Zavalaren lana beharko zen aurrena, funtsezkoena, eta baita hark, "txotxekin su txiki bat pitzuz", sortutako argialetxea ere, Auspoa. Gero, zentsuraren oztipoa desegiten lagunduko zuen norbait, seguru asko Antonio Arrue idazle eta abokatua. Hurrena, dirua arriskatuko zuen

argitaratzailea: aita Zavala bera, ez baitzuen Jesusen Konpainiak ardurarik hartu nahi izan. Ondoren, noski, irakurleak beharko ziren, irakurle arduratuak batez ere, Manuel Lekuonaren *Literatura oral euskérica*k hezitakoak. Baldintza horiek guztiak bete-ta, liburuari aparteko irakurle bat falta zitzaion, irakurle *arrotz* bat, liburuari bultzada erabakigarria emango ziona. Eta hura ere izan zuen azkenean: Gabriel Aresti. *Pello Errotaren bizitza* inoiz bere eskuetara iritsitako euskal “nobelarik” onena zela adierazi zuen berak, eta sari bat merezi zuela.

Esku horiek guztiak eta beste hainbat ibili ziren tartean. Eta, alde batera, arraroa izan zen ahalegin hura. Jakina da –nik behintzat ez daukat dudarik– literaturak eta literaturaren munduak eredu aristokratikoaren usteak eta maniak hartzen dituela aintzat, eta *Pello Errotaren bizitza* ikusezina dela eredu horretatik begiratuta. Eta beste eredu nagusitik –eredu komertziale-tik– begiratuta ere, berdintsu: ikusezin. Zer arrazoi izan zuten, beraz, aita Zavalak, Lekuonak, Arestik, *Pello Errotaren bizitzari* balioa emateko?

Nik badakit aita Zavalak erantzungo zukeena, idatzita baitauka. Izugarri maite zituela herri-kontaerak, eta horregatik ibili zela “oinez eta jakin minez” halakoan bila. Eta badakit zer egon zen *Literatura oral euskérica* delakoaren oinarrian ere, Manuel Lekuonak berak aitortu baitzidan 1965ean Andoainen, bere antzerki-lana, *Eun dukat*, entseatzen ari ginela:

“Euskal kulturari buruzko nazioarteko batzarra egin zen Oñatin 1918. urtean, historian aurrenekoa. Eta hara bertaratu zen sasijakintsu batek mesprexuz eta irainez hitz egin zuen Euskal Herriaz. Herri baldarra eta ezjakina zela euskalduna, adierazi zuen; ez zeukala poeta bakar bat ere, eta ezin zela imajinatu ere egin Heinrich Heineren mailakorik bertan. Izugarri haserretu nintzen hori entzutean, eta aurka egin nion esanez ez genuela

Heineren mailakorik edukiko, baina horren ordez ehunka herri-poeta geneuzkela, bertsolariak. Beste irain batekin erantzun zidan sasijakintsuak, eta une hartan bertan bertsolariaren balioa azalduko zuen liburu bat idaztea erabaki nuen. Holaxe sortu zen *Literatura oral euskérica*".

Gabriel Arestik ere –asmatu egiten dut hau, ez bainuen berarekin gai honi buruz hitz egin, eta irakurri ere ez baitiot inon irakurri– sentsibiltate *alemaniarra* izango zuen Zavalaren eta Lekuonaren moduan, Herder, Schiller, Grimm, Von Chamisso eta beste erromantikoen ondorengoak; baina horretaz gain, ideia komunistak zituenez, herri xehearen bizitzaz hitz egiten zutelako maiteko zituen Mikela Elizegiren edo bertsolarien kontuak. Gogoan daukat oraindik Bilboko *Anaitasuna* aldizkarian argitaratu zuen Txirritari buruzko testua. Bertan, haren bertso bat kopiatzen zuen: "Etxe maiorazkoa nintzan tokamentuz, baldin serbitu banu aita pulamentuz, nere bizimodua beti dabil kantuz, despatxatuko naute ez banabil kontuz". Poeta sozialaren definizio paregabea iruditzen zitzaion bertsoa Arestiri.

Zeinahi zirela ere, direla ere, arrazoiak, ondorioa bat-bera da: ahozkotasanari eta herri-literaturari balioa ematen ziotela hirurek. Kontuan izan gure hizkuntzan, XX. mendera arte, oso urria izan zela idatzizko literatura, eta bazuela bere arrazoia Lekuonari Heine aipatu zion kanpotarrak. Beraz, hizkuntzari eta, oro har, Euskal Herriko kulturari balioa eman nahi bazitzaion, nahitaezkoa zen aurrena herri-literatura goraiatzeari. Batzuetan justizia osoz, Mikela Elizegiren kasuan bezala.

Galde genezake orain: non datza *Pello Errotaren bizitzaren* balioa?

Buruan XIX. mendeko nobelak dauzkanak, Zola, Balzac eta Frantziako beste "notarioek" idatzitakoak, edota Dickens, Eça de Queiroz edo Dostoievskirenak, ez du beharbada ondo iraku-

riko testu hau; ezta Hauspoa bildumako aurrekoa ere, *Neronek tirako nizkin*, edo hurrena etorriko direnak. Nobela horien orrialdeetan, eredu naturalistak hala aginduta, materia guztiguztiak aurki daitezke, historiakoak bezala soziologiakoak edo psikologiakoak, eta beren balioa errealtatearen alderdi guztiak azaltzeko gaitasunean datza. Baina ez da, nolana ere, eredu unibertsala. Milaka liburu daude beste asmo batzuekin sortu eta beste modu batera irakurri behar direnak: ez entziklopedia narratiboak bailiran; ez uzta orokor bat jasotzeko asmoz, baizik eta *anthos* batzuk, lore bitxiak, pasarte apartak, poesia-izpiak, aurkitu nahian.


Litekeena, alde horretatik, Hauspoa bilduma honetako lehen argitalpenak, *Neronek tirako nizkin* delakoak, ez jasotzea Espainiako gerra zibilaren item guztiak. Baina, zenbat balio dute Legutioko batailaren inguruko orrialdeek? Nire ustez, izugarri. Ez da aurkituko leku askotan –literatura askotan– haien parekorik. Sebastian Salaberriaren orrialde horiek indar dramatikoak dute, eta aparteko egitasun bat. Berdindu ditzala ahal duenak.

Gauza bera *Pello Errotaren bizitza* honetan. Zenbat balio dute, poetikoki, Mikela Elizegik hurbileko heriotzen aurrean esandakoak? Zakur amorratuak hozka egindako neskatoaren pasarteak, kasu, edo hemeretzi urterekin hildako ahizparenak? Ezin da neurtu. Nire aldetik, ohar bakarra egin dezaket: halako impresioa egin zidatela liburuko pasarte horiek non, prezipitazio kimiko baten moduan, Obabako mundua garden azaldu zitzaidan buruan. Hainbatek jakingo duenez, *Bi anai* liburua-ren hasieran hitzez hitz aipatu nituen pasarte horien hainbat lerro.

Manuel Lekuonaren edota aita Zavalaren espiritua ez da itzali, eta hari eusten diote Pello Esnalek, Jabier Kalzakortak, Joxemari Iriondok eta Hauspoa bilduman dabiltzan guztiek. Zorio-

nekoak gara horregatik, eta, eskoletako gazteak eta gainerako irakurleak gogoan, harrerarik onena opa diogu *Pello Errotaren bitzita* liburuaren edizio zaindu eta berritu honi.

BERNARDO ATXAGA



Pello Errota (1840-1919) bere etxeko atarian 1916an.
Argazkia: Indalecio Ojanguren.

ITZAURREA (1963)

Liburu onek ez du itzaurre luzerik bear. Nola egiña dan itz bitan adieraztea asko du.

Pello Errotaren seme-alabetatik bat bakarra bizi da, Mikela, 94 urterekin. Jaungoikoari eskerrak, urteak ez diote batere burua illundu, ezta ere mingaña lotu.

Makiña bat arratsalde goxo pasa izan degu bera kontari ta ni entzule. Ta obe bearrez, bereala asi nintzan magnetofon bat eramaten. Arrezkero, arek jasotzen zuan gure berriketa guzia.

Gero, etxerakoan, ariak jaso paperera pasatzen nuan. Ori izan da nere lana, besterik ez. Aldaketa bat sartu da: ariak gure alkar-izketa jasotzen zuan, alegia nere galderak eta Mikelaren erantzunak; ta liburua moldatzeko, alkar-izketan esana kontaeran jarri bear izan det noski.

Esan bearrik ez, Mikelaren itz bat edo esaera bat ere ez dedala, ezin bestean baizik, ikutu.

Beraz, liburu au Mikelari zor zaio oso osorik. Orregatik izena du "Pello Errotaren bizitza, bere alabak kontatua".

Urrena, Pello Errotaren beste liburu bat dator: "Pello Errotak jarritako bertso-paperak". Paperak zergatik eta nola jarri zituhan, Mikelak berak adierazi digu.

Bañan askok erreparatuko dute, Pello Errotaren bertso ta gertaera danak ez daudela bi liburu auetan. Bai, ala da; gerok ere badakizkigu beste asko. Zergatik ez ditugu jarri? Mikelak emanak ez diralako.

Oyek irugarren liburu baterako gorde ditugu. Ontan, erriaren aotik jasotako Pelloren bertso, pasadizo ta ateraldi guziak

jarriko dira. Erdi egiña dago, bañan denbora pixka bat bearko du osatu artean.

Laugarren liburu bat ere izango da: "Pello Errotaren itzala" jarriko diogu izena. Pellok, bere ondorengoetan, oraindik ere aitu ez dan bertsolari-jatorri bat sortu zuan. Bere ondorengo oyen bertsoekin osatuko da laugarren liburu ori.

Lau liburu auek gordeko al dute Pello Errotaren izena gure artean betiko!

ANTONIO ZAVALA S. I.



Mikela Elizegi Bengoetxea (1869-1967)
1963an, 94 urterekin.
Argazkia: Pascual argazki-etxea.

Pello Errotaren bizitza
bere alabak kontatua

GURE AITONA-AMONAK

Gure aitaren aitak Jose izena zuen. Errotaria zen eta, gure aitari Pello Errota bezala, hari Jose Errota esaten zioten.

Jaiotzez Larraulgo semea zen, Larronbide-etxeberri base-rikkoa, baina gero gu denok jaio ginen errota horretara etorri zen bizi izatera.

Karta-jokoan izugarri gustatzen zitzaiona zen, eta gure aita, berriz, karta bat jokatzeko ez zekiena.

Egun batean, Karidadeko bentan jokoan ari zela, zeuzkan diru guztiak galdu omen zituen. Gure aita, berriz, begira zegoen.

Bere esan guztia “Makabo!” omen zuen aitona, eta xoxik gabe gelditu zenean ere, hala esan omen zuen:

–Makabo!

Eta gure aitak:

–Denak galdu ditu eta akabo!

Beste egun batean, Karidadeko benta horretan bertan, jokoan hasteko zeudela, gure aitak zer egin zuen? Aitonak dirua zuela antzematen ziotenean, engainatu egiten zuten, eta bere aita postura hartan ez ikusteagatik, kartak harrapatu eta balkoitik saltatu zen gure aita.

Beste batean, txerri gizenekin joan omen zen aitona hori Tolosara.

Garai hartan kamiorik ez zen, eta menditik joaten zen jendea Tolosara. Bide *extravagante* bat zen. Asteasuko Zabaletik pasa eta aurreraxeago, Anoetako partean, bide-buelta batean, benta bat zen, Auzibarko benta. Hara noiz edo noiz lapurrak ailegatuak zirelako edo, Lapur-benta ere esaten zioten. Halako tokian zegoen.

Ba, handik pasatzen ikusi zuten gure aitona bi gizonak, eta hala esan zioten elkarri:

–Jose Errota txerri gizenekin pasa duk eta honantzean dirua ekarriko dik.

Hala, elkarrekin entendituta, biren artean batekikoa erraz egin zuten. Han utzi omen zituen txerrien diru guztiak. Orduan jende gaiztoa ere bazen.

Hala ere ez zuen buruan sartzen tranpa egiten ziotenik.

Zazpi seme-alaba izan zituen: Manuela, gure aita, Sabina, Josepa Luisa, Maria Antonia, Jose Agustin eta Juan Krutz¹.

Gure aita ez ezik, Sabina eta Juan Krutz ere bertsolariak izan ziren.

Gure aita ezkondu zenean, hura etxean utzi eta familia guztia Zizurkilgo errota batera joan zen bizi izatera, Akeskoagara. Villabonako kamio ondoan dago.

Handik Adunara pasa ziren. Orain Sorondoren fabrika dagoen horretan, zubi ondoan, bazen garai hartan errota bat. Aduna-errota esaten genion guk hari. Hor denbora gutxi egin zuten.

Hurrena Oiartzuna joan ziren, Zuloagako errotara.

Eta Juan Krutz ezkondu zenean, beste errota batera pasa zen gure aitona. Behin ailegatu nintzen ni hara, neska gaztea nintzela. Ez zegoen alde-aldean ere. Ergoin guztitik barrena joanda, mendiko errota-zulo bat zen. Ez jakin orain, ordea, zer izen zuen.

Bazen orduan Oiartzunen gizon xeble bat, *Eperra* esaten ziotena. Haren etxea zein zen erakusten aritu zitzaidan aitona. “Hori da Eperraren etxea” esaten zidan. Goiko malkarrean etxe beltz zahar bat zen.

Beti alaba zaharrena, Manuela, izaten zuen etxerako.

Han hil zen gura aitona hori.

* * *

Asteasuko festak sanpedrotan dira. Urte batean, bere pobrezan hainbeste gastu eginda, ez zitzaion Oiartzundik inor ere etorri: ez aitarik, ez seniderik. Orduan bertso hau bidali zion gure aitak bere anaia Juan Krutzi:

*San Pedro pasatzeko
neukan umoria,
arrigarriya izan dek
tristura neria:
gure parienterik
etorri gabia;
aitari aztu zaiok
onera biria,
onuzkero biarko
nik bakardaria.*

* * *

Gure aitona horri emaztea gazterik hil zitzaion. Joxepa Ramona zuen izena. Sorabillako alaba zen.

Egun batean Hernioko gurutzera igo zen. Handik bueltan, egarriak eta izerditan zetorrela, Iturriotzen urez bete-bete egin omen zen. Gero kasurik egin ez, eta handik petxutik hil zen.

Gure aitonak honela esaten zuen gero askotan:

–Bai, ni hogeita hamahiru urterekin eta zazpi kriaturarekin alargundu nintzen.

Gure aitak hori enkargatzen zigun gero beti:

–Herniora joan behar baduzue, zoazte. Baina ez edan gero Iturriotzen urik, nire ama horregatik hil zunan eta.

* * *

Gure ama Zizurkilgoa zen, Galardi baserrikoa. Hango aitonaren berri ez dakit, amonarena bai.

Hark, taloak erretzeko egurrik ez bazuen, inor ez molesta-zeagatik, atariko aranari aizkorarekin adar bat berde-berdean kendu eta egur harekin sua egiten zuen, denak harritzeko moduan; baita ere su harekin talo pila ederra erre familia guztiarentzat.

Haren aitak –Lexo-Errekalde esaten zioten– halaxe esaten omen zuen askotan:

–Alkatearen bararen gainean juramentu egingo nuke, nire alaba horrek bere denbora guztian kontestazio bat egin ez didala.

Bizi zelarik, hala esaten zuen gure amona horrek askotan:

–Jaungoikoak eman diezagula argia hilean eta bizian.

Petrolioizko kinke eta kriseiluak izaten zituzten haiek gauerako, eta gaurko elektrika baino kaskarragoa bazen ere, gehiago estimatzen zen orduan argia.

Gaixotu zen, eta barrenak txistu egiten zion. Udan sagastian egiten zuen siesta, eta bere barrenko txistu hura adituta, errezeloa jarri zitzaion, han sagarpean lotan zegoela, sugeren bat edo sugandilaren bat barrena sartua izango ote zuen. Eta medikuei hitza atera zien, hiltzen zenean gorputza askatzeko, eta barrenean zer zuen ikusteko.

Hala, hil ondoan askatu zuten, eta minbizia bilatu zioten saihetsean. Putzu-zulo bat omen zeukan.

Gorputzez zegoen gauean, arrosarioa esatera etorri zen jendea, eta argizaria –erroskako kandela horia– plater batean jarri eta piztu zioten.

Arrosarioa esan eta jendea joan zenean, argizaria oraindik bukatu gabe zegoen, eta haren alabek –Mikaela Iñaxi eta Joakina Anttoni, nire amandrea eta ama– pentsatu zuten hura ahitzerako ekarriko zutela berria.

Akordatu zirenean hala esan zioten elkarri:

–Honezkero errea izango da eta goazen.

Eskaileretan gora zihoazela, goian, gorputza zegoen tokian, bazter guztiak argitan zeudela ikusi zuten. Hala esan zuten:

–Ai ene! Sutan zegoen kuarto guztia!

Alderatzen atrebitu gabe egon ziren puxka batean; baina joan egin behar eta, sartu zirenean, aurkitu zuten argizaria den-dena ahituta zegoela, eta plater hutsak argi egiten zuela. Hala esan zuten:

–Gure ama santa bat zen! Bizi zela “Jaungoikoak eman diezagula argia hilean eta bizian” esaten zuen, eta hau milagro bat da!

Korrika jaitsi eta denei kontatu zieten. Gero igo eta argizari berria jarri zioten.

Gure amona hori Jose Bernardo Otaño Errekaldekoaren lehengusu propioa zen, amak ahizpak.

SENIDEAK

Senideetan zaharrena neska izan genuen, Joxepakiña –Josefa Joakina–, baina umea zela hil zen. Nik ez nuen ezagutu.

Bigarrena ere neska: Joxepa Iñaxi. Hau Ameriketan hil zen.

Hirugarrena, berriz, mutila, Juan Tomas, baina hau ere oso umea zela hil omen zen.

Laugarrena ni izan nintzen.

Bosgarrena, Miel Anton anaia, anaietan gelditu zen bakarra.

Seigarrena, Juan Krutz. Oso mutil polita zen. Gogoan izaten dut. Osaba Juan Krutzen besoetakoa zen, eta aitajaunak nahi izan zuen Oiartzuna festetara sanestebanetan eramatea. Etxean karroa prestatu eta han abiatu ziren aita eta amarekin. Eta bidean zihoazela, eguzkiak pasa omen zuen. Etxera ekarri zuten, medikuak makina bat jornada egin zion, baina alferrik: burua eta muinak eguzkiak paseak zeuzkala. Hesteetakoa ere izan zuen. Eta hala hil zen. Aitak eta amak pena handia hartu zuten.

Zazpigarrena Maria izan zen, Nafarroako Leitzara ezkondu eta orain denbora gutxi dela hil dena.

Zortzigarrena eta azkena, Dolores, neska ederra².

Beraz, hiru gazterik hil, eta bost senide gelditu ginen: Joxepa Iñaxi, ni, Miel Anton, Maria eta Dolores.

Orain denak ere hil dira, eta ni bakarra nago munduan.

GURE BIZIMODUA

Gure jaiotetxea Villabonako kamio ondoan dago, Asteasutik kilometro bat.

Bi etxe daude: bata handia, baserri galanta, bere armarri eta guzti, Konporta; bestea txikia, errota gurea, Goiko-errota³. Biak nagusi batenak ziren: don Luis Zabala jaunarenak. Larraulen eta Asteasun hogeita hamaika etxe bereak zituen jaun horrek.

Gure jaiotetxe hori orain ere txiki askoa da, baina gure ume-denboran are txikiagoa zen: etxe xahar-xahar-xahar bat, eta han sukaldea eta kuarto xahar pare bat.

Orain daukan atzeko bigarren puska hori, gure ahizpa Dolores jaio zenean erantsia du. Gu maizterrak ginen, eta nagusiak egin zuen gure etxeko obra hori. Gero errenta pixka bat gehituko zion noski gure aitari.

Lehenago ez zuen garia garbitzeko makina-eta sartzeko tokirik, baina harrezkero goian, ganbaran, jarri zuen.

Errotaren gaineko aldean botana dago. Hura ni baino lehenagokoa da, baina gero nire ume-denboran altatu zuten.

Botanako ura gero turtukia esaten zaionetik joaten zen, eta orduan errotarria bueltaka *tlak-tlak-tlak* hasten zen.

Hantxe izaten ziren errotarria jasotzeko errota-hagak, garia garbitzeko galbaheak, harria pikatzeko harpikoak eta errotan ibiltzen diren gainerako erreminta guztiak.

Harpikoek, holaxe erdian, mailuak bezalaxe, zulo bat izaten dute, eta bi aldeetan ahoak. Horiek sutegian zorroztu behar izaten ziren. Sutegia herrietako errementeriari esaten zaio.

Errotarri pikatu berriak askoz gehiago ehotzen du. Gai-neko harria jaso eta azpikoa pikatu beharra izaten zen; gero gainekoa eta azpikoa, bi errotarri ibiltzen baitziren.

Errotarria pikatzen ari zela, bertso kantari aritzen zen gure aita. Jesusen Pasioarenak ere orduan kantatzen zituen.

Ogi-harria, arto-harria baino maizago pikatu behar izaten zen. Ogi-harria garia ehotzekoa zen, eta arto-harria, berriz, artoa ehotzekoa.

Arto-harria hobexeago edo gaizkixeago, edo lakarra egiten ari zen edo zer ari zen, dena antzematen nion nik; erraz gainera. Errotarritza ikasi nuen, bai, nik. Baina ogi-harriari ez nion antzematen. Gure aitak bai, gure aitak begiratu hutsean antzematen zion ogi-harriari ere.

Gure etxeak inoiz kalterik izan ez bazuen ere, neguan uholde ikaragarriak izaten ziren.

Baina udako lehorteetan errekek ur gutxi ekartzen zuen, eta errotak ura behar ibiliko bazen. Eta guk irina behar, jango bagenuen.

Horregatik, botana bete eta hustu, bete eta hustu ibiltzen ginen, gau eta egun eten gabe.

Errota, botana betetzear, hasten zen *tlak-tlak-tlak* egiten. Eta husten zihoanean, hotsean antzematen genion: *tlak-tlak-tlak*.

Holako lehorteetan, betetzeko ordu pare bat behar izaten zuen, eta betealdi bakoitzean anega bat arto ehotzen zuen.

Ama gelditzen zen gauean ur-zain. Botana betetzen zenean ehotzen hasi, eta husten zenean, berriz bete arte itxoin, garia galbahean garbituz eta botanari kontu eginez.

Gau guztiko alimentua, sagar bakar bat jaten zuen, sukaldeko hauts-tokian biguntzen edukita.

Goizean ordu pare batean lo egingo zuen, eta jaiki eta etxeko lanetara. Siesta gutxitan egiten zuen.

Ehotzeagatik, anega bakoitzean sei libra, alegia hiru kilo, hartzen genuen. Horri esaten zitzaion "lakak kentzea". Hartatik familia hazi behar.

Garai hartan anega bat arto-irin zazpi pezeta izaten zen, eta garia bazen pezeta pare bat gehiago. Ez zen gaurko kon-turik.

Baserrietakoak etxera etortzen zitzaizkion. Etorri eta irina baldin bazegoen, lakak kendu, trukatu eta etxera eramaten zuten. Ez baldin bazegoen, berriro etorri behar izaten zuten. Baina Andoaingo, Aiako, Villabonako, Zizurkilgo eta holako panaderietara gure aitak berak eramaten zuen.

Hartarako asto bat izaten genuen. Eta Aiara ere joaten hasi zenean, idia ekarri zuen.

Egun batean, gure aita kanpoan zela, Zizurkildik, erremedio gabe irina behar zuela bat edo bat etorri zen. Gure amak eskribitzen ez zekien, eta alaba, nire ahizpa, bidali zuen, irinarekin herri batetik bestera joateko behar izaten zen txartela gabe. Eta bidean mikeleteak harrapatu eta kontrabando egin zion. Zakuak, astoa eta denak kendu zizkion. Kendu eta Luzuriagan sartu zituen.

Aita etorri zenean, zer gertatu zen esan genion, eta mikelete horrengana joan zen. Hola esan zion:

–Adiskidea, niri kalte handia egiten zait horiek denak kenduta. Isil-isilik pasa ezazu eta bost duro emango dizkizut.

Baina mikeleteak ezetz, bere obligazioa egin behar zuela.

Garai hartan mikelete guztien printzipalena Tolosan izaten zen, Arnao zeritzon bat, eta harengana joan eta hola esan zion:

–Nire emazteak ez daki eskribitzen, umeak ere ez oraindik. Ni kanpoan nintzela, erremedio gabe irina behar zuen bat etorri zen, eta andreak eman egin zion, eta gero holako mikeletek kontrabando egin digu. Agindu diot, baina ez dit eman nahi. Zakuak, astoa eta denak kontrabando egin dizkigu. Oso niretzako atraso txarra da, eta zenbat behar duen esan behar dit.

Eta Arnao horrek hala erantzun zion:

–Zerorri etorri zarelako, barkatu egiten dizut.

Lurrik ez genuen, atariko baratze pixka-pixka hura besterik ez. Ni Ondartzara ezkondu eta gero, Ondartza ondoan soro txiki bat utzi zieten.

Etxeko nagusiek Konportako mendia libre uzten ziguten astoarentzat. Egurra ere handik ekartzen genuen.

Gure aitak idia ekarri baino lehen, behi bat ere izaten genuen. Horiek ere Konportako mendi horretara bidaltzen genituen larrera. Hantxe mantentzen ziren.

Gainerakoan, txerri eta oilo batzuk izaten genituen.

Eta ni gazte-gazterik Donostiara neskame ekarri ninduen aitak. Baina etorri orduko hankak izugarri handitu zitzaizkidan, eta medikuak hola esan zidan:

–Sekulan ere itsas haizeak ez zaitu ondo hartuko, neskatxa.

Eta egia. Ni ondoezik jartzen nintzen kostaldera nindoan aldi bakoitzean, eta orain berriz, zahartu eta gero, Donostian bizi naiz.

Halaxe, Asteasun bertan josten ikasi eta josten aritu nintzen ezkondu bitartean, xox batzuk etxera ekartzeagatik.

Horra ba gure bizimodua zer zen. Errotarien bizitza zer izango da ba? Ekartzen zuten gari- eta arto-lakekin bizi behar gu denok. Familia handia ginen, eta orain adina fantasia gabe hazi ginen, bai!

Gure aita gizarajoak ez zion bere buruari asko barkatu. Ahal zuen modu guztietara saiatu beharra izan zuen, gu denontzat sortuko bazuen.

Horregatik, bertsotara joan eta dirua ekartzen zuenean, pozak gu denak.

Orain urte asko ez dela, San Pedro bigarren batean, Uzta-pide gure etxean, Asteasun, bazkaltzen izan genuen.

Bazkalondoan bertsoa bota zidan, "amona, zer moduzko bizia" galdetuz, eta nik holaxe erantzun nion:

*Pobriak jaio eta
pobriak biziyak,
iñork eztit ukatzen
eman nai guziyak,
nunbait izango ditut
danak mereziyak,
zor-artzekotan kito,
Jaunari graziyak.*

Hala bota nion. Hori edozein tokitan botatzeko ere bertso ederra da. Inork berriz toreatzen banau, horixe botako diot. Gure bizimodua, bai jaiotetxean eta bai gero ere, hola izan baita.

GURE IDI TXIKITO

Lehen aipatu dudan idiak badu bere istorioa.

“Txikito” eta “gure idi Txikito” esaten genion. Horrekin kasu egiten zuen.

Egun batean, aita irina eramaten Aiatik zetorrela, arrantxo egitera Asteasuko Panaderi esaten zitzaion tabernan sartu zen, idia eta karroa atarian utzirik.

Handik atera zenean, ordea, ez zuen ez idirik eta ez karroirik aurkitu, eta etxera joana izango zelakoan, etxera etorri zen bera ere. Baina etxean ez zen idirik ageri. Orduan bila hasi zen. Ilundua zen.

Bazen, Txortu esaten zitzaion kamio-bueltan, handik behera errekaraino zihoan bide txar peligroso bat. Oraindik ere han dago hura.

Ba, hantxe bilatu zuen idia karroarekin, baina brusa batekin burua tapatuta. Bat edo batek idia hara eraman, brusarekin itsutu eta han utzi zuen, pixka bat mugitu eta malkarrean amilka eror zedin.

Idia eskuinetara pittin bat bada ere mugitu izan balitz, ez zeukan errekaraino geratzerik, eta mila puska egingo ziren idikarroak. Baina ezkerretara pauso bat edo mugituta, geldi-geldi zegoen, eta ez zen deskalabrurik gertatu.

Brusa norena zen ezagutu zuen gure aitak: herriko eza-gun handi batena. Baina ez zion inori salatu, eta nik ere ez dut esango. Baina idiari opa izan zion bezalako errematea izan zuen berak ere. Lanean ari zela, lagunaren deskuiduarengatik hil zen.

Gure aitak milagrotzat hartu zuen idia ez amildua. Hala esaten zuen askotan:

–Nik berriz ere arrosarioa esango zionat Ama Birjinari, bai, bidean noala.

Hura beti bidean erreztatzen edo bertso kantatzen joango zen.

Egun batean, ordea, gure idi hori Aiara karga handiarekin eramán zuen. Animaliek pulmonia izaten omen dute pertso- nek bezala, eta bidean izerditu eta pulmoniarekin hil zen. Eta larrutu egin zuen gure aitak. Pena handiarekin gelditu zen.

Erremate hori izan zuen gure idi Txikitok. Asko maite genuen.

“BEJONDEIALA, MUTIL”

Kolerako denbora ez daukat nik gogoan. Aitak bai, aitak askotan kontatzen zituen orduko kontuak.

Koleraren kontra oso ona zelakoan, kolkoa baratxuriek in betea ibiltzen zuen gure aitak.

Egun batean, Asteasuko Agerre-beko parean pasa zen, irinarekin zihoala. Hango semea oso laguna zuen, eta atarian jardun ziren elkarri esaten:

–Holako eta holako hil omen dituk.

–Bai, hil omen dituk, bai. Ez dakigu gure sententzia non eta noiz dagoen.

Gure aita joan zen, eta irinak utzi eta bueltan etorri zenerako, hilda aurkitu zuen atarian Agerre-beko bere lagun hori.

Hurrena Tolosara feriara zihoan. Lehen esan dudana bezala, astoarekin irinarekin-eta zihoala, bertso kantari edo arrosarioa errezatzen ibiltzen zen beti. Orduan ere, txapela eskuan hartu eta Agerre-beko lagunarentzat arrosarioa esaten omen zihoan.

Eta askotan esaten zuen, Anoeta baino lehenago, Legarretako parean, txapela zeraman behatzean tira bat sentitu zuela eta “Bejondeiala, mutil!” aditu zuela; buelta osoa eman eta ez zuela inor ikusi.

Hala esaten zuen:

–Nik “Bejondeiala, mutil!” aditu nian, eta nik buelta osoa eman eta ez nian inor ikusi.

Agerre-beko semearen arima izango zen errezeloa izaten zuen.



KARIDADEKO BENTAN

*Karidadeko bentan
gu sei bertsolari:
Errekalde zarra ta
Juan Jose Udarregi,
Bernardo Zizurkilko,
Gazteluko Gorri,
Errenterikua da
Xenpelar jaun ori,
ni Astiasukoa
Pello Errotari.*

Bertso hau aurrena Karidadeko bentan kantatu zuen gure aitak, han sei bertsolari juntatu ziren batean.

Hurrena, berriz, Tolosara teatroan-edo kantatzera joanda, han inportantziazko gizonen batzuek esan zioten izugarria zela sei bertsolariren izenak berea atzena zela kantatzea, eta ea egia al zen.

Baietz gure aitak, egia zela; sei bertsolari juntatuak zirela, eta hala botea zuela.

Eta bai han ere hala kantatu hark. Orduan hala esan zioten:
–Ba, bertso horrekin premio dena irabazten duzu.

Pasadizo hori aitari aditua nuen, eta orain denbora asko ez dela, holakorik aditzea batere pentsatzen ez nuen gizon bati ere aditua diot.

KARLISTEN GERRATEA (1872-1876)

Konportako gizona zegoen orduan Asteasun alkate, Jose Antonio Ugalde. Gau batean Konportara etorri ziren soldaduak, karlistak, esanez:

–Holako lekutara bidea erakusteko bat edo bat behar dugu.

Hango gizona *beltza* zen, eta karlisten beldurrez etxeko “alanbreran”, alegia teilatura igotzeko zeran, gordeta zegoen.

Eta andreak erantzun zien:

–Pello Errotak erakutsiko dizue.

–Nor da Pello Errota?

–Aldameneko errota horretako gizona.

Hala, gure etxera etorri ziren. Gu denok ohean ginen. Zer nahi zuten esan eta han eraman zuten gure aita, apreta janzteko beta gabe hanka bat hankutsik zuela. Ama negarrez gelditu zen.

Bidean zihoazela, hala esan zion haietako batek:

–Ez ikaratu, Pello, ez dizugu ezer egingo.

–Zer ba?

–Holako lekutara holako ordutarako joan behar dugu erremedio gabe. Ordena dugu eta ez dakigu bidea, eta zuk erakutsi behar diguzu.

Poza hartu zuen.

–Bidea erakutsiko dizuet, bai –esan zien, eta horrela joan ziren.

* * *

Beste egun batean karlistak Lizarraga beren jeneralarekin etorri ziren. Honela esan zuten:

–Tira, Pello, Urkamendira joan eta beltzak han diren edo ez diren ikusi behar duzu.

Urkamendi hori Adunako erreka aldetik dago, Aduna eta Zizurkil tartean. Izen hori omen du antzinako gerrate zahar batean jendea hantxe urkatu eta ito egiten zutelako.

Ezetz esaterik ez, eta agindu bezala joan zen gure aita.

Gure etxetik ez da mendi hori ikusten, baina aldameneko etxetik, Konportatik, ederki ikusten da. Handik begira jarri ginen gu denok. Gure ama negarrez, eta gu, berriz, umeak.

Errotariak irin-kutsua beti izaten du, eta gure aita txurixuri egina zihoan, eta gogoratu ez hala zihoanik. Eta gauean oso ageri zihoan.

Gain hartara iritsi zenean, liberalak hantxe ezkutuan jarrita egokitu, eta bat-batean elkar topo egin zuten. *Dik-dak* tiroka hasi zitzaizkion.

Airean itzuli abiatu zen, eta liberalak *dik-dak* atzetik.

Luzuriagako karobia saltoan pasa zuen, eta gero bere burua amilka bota zuen aldapan behera.

Bitartean, gu hori dena ikusten Konportako leihotik. Eta halako batean bistatik galdu zitzaigun. Orduan etsi zuen gure amak gure aita bizirik ikustea. Lizarraga hori han bertan zegoen eta honela esan zuen:

–*Gure paixanua hil izain da.*

Gure ama zenari ez zitzaion Lizarragaren esana ahazten. Honela esaten zuen:

–Hori esan behar al zuen, ba, nire aurrean, patxada guztiarekin?

Lizarraga hori ez zen hemengo umea, Oiartzun aldekoa edo nafarra izango zen.

Eta halako batean han agertu zitzaigun gure aita gizarajoa. Hainbeste tiro aldamenetik bota izanagatik, balek ez zuten ukitu ere, baina elastikoaren puntak zuloz beteta zituen.

* * *

Gero karlistek alde egin eta liberalak Urkamenditik jaitsi eta etorri ziren.

Konportan sartu eta eraman zitezkeen gauza guztiak hartu eta eraman zituzten. Haiek ere alde egin zutenean, honela zioen hango etxeoandreak, Xalbadorak:

–Ene! Bataioko txapela ere ostu digute. Andrea haurdun duen bat edo batek eramango zuen hori.

Ez ziren gure etxera etorri. Etxe txiki hartan ez zela ezer izango pentsatuko zuten.

Gerrate hartan errespetu gutxi zegoen. Baserrietatik txekorrak hartu eta eramaten zituzten. Emakumeak kutxen barreanean ezkututzen ziren soldaduen beldurrez.

* * *

Soldaduek oiloak hil eta jaten zituztela eta, gure etxean zer egiten zuten? Orain ez dira ikusten, baina garai hartan baziren *kuela* izeneko ontzi handi batzuk; zurezkoak ziren eta gaina irekia zuten. Antigoaleko amonek zapi zuriak egosteko ziren.

Ba, etxeko oiloak kuelan sartu, gaina tapatu eta errotapera eramaten zuten. Ura han burrunban, zorrotan, joaten da, eta haren azpian jartzen zuten kuela.

Tanta batzuk sartuko ziren, baina gutxi.

Nori gogoratuko zitzaion han oiloak zeudenik? Hala, gerraren bora guztian oilo gutxi faltatu zen gure etxetik.

Zituzten arropa pixkak gordetzeko, berriz, orduan baulik ez zen izaten, eta antigoaileko kofre handi batean arropa denak sartu eta Tximelaeneko baratzerara eramaten zuten.

Han zulo bat egin, kofrea zuloan sartu, lurra gainetik bota, eta gero txorkotxarekin tapatzen zuten. Txorkotxa artoaren zuztarra da.

Noizean behin, gauean, aita kofreak eta arropak han segitzen ote zuten ikustera joaten zen.

Amak honela galdetzen zion gero:

–Han al daude?

–Bai, ikusi ditut. Ez da ezer faltatu. Txorkotxarekin tapatapa eginda utzi ditut.

* * *

Nik sei bat urte izango nituen orduan, eta gogoan izaten dut nola egon nintzen egun batean Konportan mapilaren azpian, taloak egiteko kajaren azpian alegia, *beltzek* Eizmendiko Manuela Antonirekin erdaraz hitz egiten zuten bitartean. Besteekin ez ziren entenditzen, eta harekin bakarrik. Gu artean *sí* eta *no* ere ikasi gabeak izango ginen. Gure aitak erdara pixka bat bazekien, baina amak batere ez.

Gure atariko intxaur ondoan soldaduek sua eginda, batere zuritu gabe eta batere oliorik bota gabe, patatak lata batzuetan zerrirentzat bezala egosi eta jaten zituzten. Ez dakit karlistak edo *beltzak* ziren.

Gu, ume koxkorrak ere, han ibiltzen ginen, eta guri ere ematen ziguten, eta haiek bezala jaten genituen.

* * *



PIK-PAK

PIK-PAK

PIK-PAK

PIK-PAK

PIK-PAK

Ameriketari hil zen ahizpa, egun batean bazihoan errota-
tik Konportara, eta Petesagastin zeuden bi soldaduk hola esan
zieten elkarri:

–Bi mototsekin doan harako nexka hari baietz apuntatu!

–Ezetz!

Eta *dik-dak*, bi tiro bota zizkioten, baina ez zieten apun-
tatu. Gero jakin genuen guk hori, soldaduek berek kontatuta.
Hura ere bizimodua zen!

* * *

Tiroka ere aritu ziren, batzuk Larraul aldetik eta besteak
gure etxe ondotik. Bitartean, gu gordeta bazterren batean.

Gero, bide zaharra eta hango bazter guztiak kartutxo
hutsez beteak gelditu ziren. Kartutxo-azal horien truke diru
pixka bat ematen zuten, eta gu denok haiek biltzen ibili
ginen.

Beteak ere aurkitu zituen gure amak, eta hutsak baino
hobeak izango zirelakoan eraman zituen, baina ez zizkioten
hartu. Balio ez zutelako boteak zirela esan zieten.

* * *

Santa Krutz apaiza ere ezagutu nuen. Apaiz beltz-beltz bat
zen.

Santa Krutz eta Lizarraga ez ziren ondo konpontzen, eta
Santa Krutzen mutil bat, Antxuxe, Oiartzungo semea, horrega-
tik fusilatu zuten. Antxuxe hori kapitaina omen zen, oso mutil
fina. Hil zutenean, hark bi hitz bakarrik esan omen zituen:

–Motellek, ni fina naizelako noak hiltzera. Izan finak aurrera
ere. Nik ez daukat penarik fina izana.

Eta *dik-dak* bota eta hil zuten.

Eta haren lagunei bi buelta gorputzaren jiran emanarazi zizkieten, hari negar egiten ziotenek hainbesteko paraderoa izango zutela esanez. Orduan ere komeriak ziren!

Karlistekin ibilia zen eta hori dena osaba Juan Krutzek kon-
tatzen zigun. Hura karlista enteroa zen.

ZAKUR AMORRATUEN KONTUAK (1876)

Zakur amorratuen kontuak badakizkit nik inork bezain ondo.

Nik ama Zizurkilgo Galardikoa nuen, eta han bizi zuen anaia ezkondata. Anaia hark hiru seme eta alaba hura bakarra zuen, dozena-erdiren bat urteko nexka. Anttoni zuen izena.

Eta San Joan egunean, auzora jostatzeraz umea zihoala, gari tartetik zakur zuri handi bat atera omen zitzaion, eta bota, ahoz gora jarri eta usain-usain egin omen zion muturrean, eta baita ere harramazka batzuk egin hankarekin masaillean. Ez egon nonbait zakurra amorrualdian, eta heldu gabe utzi zuen.

Etxera joan zenean hala esan omen zuen nexkak:

–Izugarritzako zakurra atera zait, eta lurrera bota nau, eta hara nolako harramazkak egin dizkidan.

Baina ez omen zioten umeari kasurik egin.

Handik laugarrena edo bosgarrena, San Pedro, Asteasuko festak, eta astoaren gainean aitarekin eta amarekin etorri eta gure etxean bazkaltzen izan zen.

Kontarazi zioten orduan ere:

–Zakur handia al zen, Anttoni?

–Bai, handia zen, zuri-zuria gainera. Ikaratu ninduen. Negarra egiten nuen, baina bota ninduen eta...

–Eta nola ez zinen ba gero etxera joan?

–Ez, Zubiaurretzo alderago neukan eta hara joan nintzen.

Eta handik berrogei egunera, berrogeialdia bete zitzaion. Jesus! Ura edaten hasi eta han zakurra ikusten zuela. Eta begiratu bat... Harrapatzen zuen guztiari hozka hasi omen zitzaien.

Orduan jakin omen zuten zakur amorratua zela hura.

Salutadorea ekarri zuten. Albizturkoa zen, gizon txiki-txiki bat, gure aitaren tamainakoa, brusa urdin motx batekin ibiltzen zena. Gogoan daukat nolakoa zen.

Harritzeko gauza da, baina egia handia hala ere: zazpi seme segidan baldin badira, zazpigarrena salutadorea da; zakur amorratuen kontrako bertutea hark du. Gero hura estudiatzera bidali behar omen da. Eta batzuek mingain azpian eta beste batzuek gainean, gurutzea izaten dute. Hark gainean zuen.

Salutadoreak umea hola, bazter guztiak puskatzen, ikusi zuenean, esan omen zien:

–Olioia ekar ezazue.

Eta olioia irakiten jarri, bere orazioak egin, eta irakiten *gal-gal-gal* zegoen olioia bere mingainera bota omen zuen hark. Gero umeari harramazka guztiak sendatu edo igurtzi zizkion mingainarekin.

Hori egin eta hola esan zien:

–Ume honek gaiztorako denak kenduta dauzka. Honek ez du jango, ez du edango, ez du lorik egingo. Holaxe-holaxe hilko da. Gaiztorakoak kendu dizkiot, baina arnasa pasea dauka.

Eta hark esan bezala gertatu zen. Gaiztorakorik ez, minik ere ez, eta kantari egoten zen:

*Ardoa eranda mozkortzen naiz,
pipa artuta txoratzen naiz,
kortejatzia lotsatzen naiz,
nola demontre biziko naiz?*

Kanta hori aditzen nion nik beti.

Baina orduan medikua ekartzea pentsatu zuten gurasoek. Bi mediku etorri ziren, eta salutadorearen handitasuna ezin

eramanik, alegia gaiztorakoak hark kentzea, hark hainbeste bertute izatea, zer egin dute?

Nire ama bidali omen zuten Villabonara, errezeta egin eta botikaren eske, eta esan omen zuten kutzare handi bat emateko handik. Nire ama hango alaba, eta lanak egiten laguntzera joaten zen. Gure aita ere joaten zen, baina gutxiago noski.

Eta botikariak hala esan omen zion gure amari:

–Andrea, botika hori kontuz ibil ezazu gero.

Hura esan zionean, handik irten eta Villabonako zubian ibaira begira jarrita pentsatzen egon omen zen:

–Nik botika hau horra botako al dut? Bai, baina gero zer egin diodan galdetuko didate eta etxera eraman beharko dut.

Etxera joan eta anaia topatu zuen:

–Aizak, hau eta hau eta hau esan zidatek, eta bota edo ez bota duda-dudan egon nauk. Hau gauza peligr osoa izango duk.

–Beno, kutzare handia bete emateko esan ziguten, eta txikia bete emango zionagu.

Eta hala, txikia bete emanda, Jesus!, dena handitu eta deiarrez martiri egon zen neska gizarajoa, ezin hilik. Handia eman izan baliote, hilda geldituko zen.

Gero gure osaba, alkate ez baina errejidorea izango zen, eta berehala mediku haiek kastigatzeko hasi zen; medikuak ez zeukala ordenarik –enteratu ziren haiek ondo– benenorik pertsonari emateko. Gure osabak esaten zuen ez zela kontu hura horrela geratuko, baina medikuek tapatu zuten dena nolabait ere. Betikoa: pobreaken arrazoia, hutsa.

Eta nexka gaixoa hil zen⁴. Orduan nexka hura bakarra zuten, nexka polita; gerokoa zuten orain Zizurkilgo Iturralden hil dena, Balentina.

* * *

Neronek ere eskapada ederra egin nuen beste batean.

San Pedro bigarrena zen, eta festara gindoazen. Zakur bat etzanda zegoen sagar baten azpian, eta mutil koxkorrek, gure anaia Miel Anton-eta, Konportakoa-eta, harrika ekin zioten.

Gu neskak atzetik, eta “utziozue zakurrari” esan genien, baina zakurra jaiki eta guregana hasi zen. Guk korri egin genuen, baina, *dak!*, gona harrapatu zidan, eta puskatu. Korrika alde egin, eta Asteasuko kaletik bide zaharrearan dagoen etxe zahar hartan sartu ginien.

–Ni orain honekin nola joango naiz festara? –esan nuen, eta etxera joan eta amaren gona jantzita joan nintzen. Oraingo neska gazteak joango lirateke!

Asteasun, eliza-igoeran ezkerretara, Santa Krutz deitzen zaion ermita txiki bat dago. Mutil koxkor bat, Illobate baserrikoa, ermita hartan zegoen itzalean jostatzen. Eta barrena sartu eta zakurrak heldu egin zion.

Handik atera eta sagardotegia zegoen Muñoko aldean, eta han meriendatzen ari omen ziren billabonatar batzuk, eta hara sartu zen zakurra. Billabonatar batek zakurra ikusi eta jana bota zion, eta zakurrak *dak!*, eskutik heldu zion.

Gero berehala zabaldu zen hura zakur amorratua zela. Eginak eduki hark toki gehiagotan aberiak.

Eta hala esan omen zuten:

–O! Hemengo salutadoreenak txoro-kontuak dituk. Parisen jartzen omen ditiztek hauek ondo.

Hala, billabonatar hura eta Illobateko mutil koxkor hura Parisa eraman zituzten. Ekarri zituzten gero handik oso ondo jarri zirela esanez. Baina egun batean mutil koxkor hura, aita-rekin itulan zebilela, han ziren harri-koxkorak jaten hasi zen. Berrogeialdia bete nonbait. Ikaratu ziren orduantxe!

Gero kuarto txiki batean edukitzen zuten, ez jan eta ez lo. Neronek ikusia da hura. Leihoak denbora bateko burdina

lodi-lodi batzuk zituen, eta haiei helduta... Jesus! Hura herioa! Gure lehengusu Anttoni behinik behin, Parisa eraman ez bazuten ere, kantari egoten zen, batere minik ez zuela, salutadoreak gaiztorakoak kenduta. Baina hura, paretari puskak kentzen eta zakurrak bezala zaunka egiten, dena amorratua. San Bartolome egunean hil zen mutil koxkor hura.

Orain badira salutadoreena sinesten ez dutenak, baina nire aurreko aldean jarriko balira, aditu beharko lukete. Horiek denak nire denboran paseak dira.

* * *

Ameriketan hil zen ahizpak ere eskapada ederra egin zuen, nik bezalaxe.

Oiartzungo osaba ere gure etxean zen egun batean gertatu zen.

Txakur txiki-txiki bat, aparra zeriola, goitik behera ate ondora etorri zen. Gure amak ikusi eta atea itxi zuen. Baina neska etxetik falta zuela konturatu zenean, garrasika hasi zen:

–Horra ba, guk alaba kanpoan dugu!

Gure aita eta Juan Krutz osaba errotarria jasotzen ari ziren, eta amaren oihuak aditu zituztenean kanpora atera ziren, haga bana bizkarrean hartuta.

Nexka aurkitu zuten eta:

–Umea, ez al dun hor txakurrik edo ikusi?

–Bai, putzuan ura edan eta edan hantxe ari zen ni pasa naizenean.

Ez ikusi zakurrak umea.

Orduan zakur amorratuen soinu handia izaten zen.

ELIZONDORA (1879)

Elizondora bertsotara joateko abisatu gure aitari. Jose Bernardo Otaño eta biak ziren. Santa Ana egunarekin joan ziren.

Garai hartan Villabonan ez zen estaziorik izango, eta Andoainen hartu zuten tren.

Plazan bi bertsolariak erretratatu zituzten. Gurea, silla atzekoz aurrera hartuta erretratatu zuten.

Gure aitak hala esan zigun:

–Zapatak ekarri behar dizkidazue.

–Zer ba? Apaindu behar al duzu? –gure amak.

–Bai. Jose Bernardo ikusten duzue nolako ederki dagoen, eta ni, berriz, alpargatekin. Berriz erretratatzea egokitzen bada ere, zapatak nahi ditut.

Hala, zapatak ekarri zizkion gure amak, garai hartan besterik ez zen eta zapata beltzak; baina, nire goraintzian behintzat, ez zen gehiago erretratatu.

Nik gaztetan eduki nituen zapatarik onenak, festetarako zapata zuriak, hamalau erreal kostatu ziren, eta gure aitaren horiek ere ez ziren askoz gehiago izango.

Gure aita beti alpargatekin ibiltzen zen. Eguraldi txarra bazen, bazituen botak, baina ez hola apaintzeko orain bezalako apainak.

Orduan dena alpargata zen. Komunioa ez bazen, gainontzean alpargatekin ibiltzen zen jende guztia.

Emakumeek alpargata grisak, gainean lore gorriarekin edo zuriarekin edo urdinarekin, ibiltzen zituzten. Alpargateriara joan eta “ea zein nahi duzun” galdetzen zuten, eta “nik lore hau nahi dut”, eta lore hura haiek berek bordatzen zuten. Orain baino alpargata dotoreagoak ziren orduan.

Gizonezkoek, berriz, ondo behar bazuten, alpargata zuriak ibiltzen zituzten. Gero ere, nire gizona apustua jokatzera alpargata zuriekin joaten zen.

Gure aitak ez zuen abarkarik ibiltzen. Jose Bernardo Errekaldeko horrek bai, baina Donostiarako. Hala esaten zuen gure aitak:

–Bai, horrek bazekik non nola apaindu. Donostiara, traje ederrarekin bai, baina abarkekin, azpantar zuriekin eta ia belaunetaraino bueltaka-bueltaka lotutako sokekin joango duk, *como casero*. Baina Amezketara, han denak abarkekin ibiltzen dituk eta, zapatekin joaten duk. Horri *distinto* gustatzen zaio, *distinto*.

Gure aita bertso kantatzera txamarrarekin –txaketarekin– joaten zen, baina gainontzean brusarekin ibiltzen zen. Jose Bernardo horri, berriz, nik ez nion inon brusarik ikusi, beti txamarra.

PARTE GAIZTOKOAK

Sorginek larri ibili zuten gure aita. Bazirela esaten zuen hark, baina direnik ez dela esan behar.

Batean bertsotara omen zihoan norabait, Andoaina edo horra, eta orduan orain adina modu ez eta oinez zihoan.

Bide-bazterrean atso bat omen zegoen, atso erdi mozkor holakoren bat, eta lagunek esan zioten:

–Pello, bertsoa botaiok horri.

Eta hari gustatu ez zitzaion bertsoaren bat bota zion, eta Jesus!, sekulako maldizioak atso hark esan omen zizkion: akordatuko zela eta akordatuko zela.

Askotan esaten zuen bazekiela seguru –edan ez zuen hark egin eta– bueltan gauean nola zetorren, eta noraino etorri zen ere bai; eta hurrena bere burua bi hankak belaunetarainoko urean ibaian zituela ezagutu zuen.

Handik zalapartaka atera eta aurreneko baserriaren atepak jo zituen.

–Nor da? –galdetu zioten.

–Pello Errota.

–Zer zabilta garai honetan?

–Non nagoen ere ez dakit ba.

–Adunako Aizpiran zaude.

–Adunako Aizpiran? Ez dela sorginik, baina badituk galantak! Gaur atso batek berebiziko maldizioak tira zizkidak, eta neure burua bi hankak putzuan nituela ezagutu dut.

* * *

Beste batean, gure etxetik gora astoaren gainean zihoala, sorginak sentitu omen zituen. Hango kriskitinak eta irrintziak eta txaloak eta burlak!

Astoari gurutzea sokarekin aurreko besoen artean egiten zaio, eta horregatik, esaera zaharra den bezala, astoarengana ez da sorginik arrimatzen.

Gure aitari ere, hainbeste sorgin-soinu eginda ere, ez zioten ezer egiten, astoaren gainean zihoalako.

Eta sorginak bere ondotik uxatzeagatik, "Aita Santua gizona al zen?" hots egin omen zien. Hori esan eta denek alde egin omen zioten, eta ez txintik aditu eta ez kinkik gehiago ikusi ez zuela askotan esaten zuen.

Asteasuko kaletik gure etxera bitartean gertatu zitzaion hori, gure etxea baino goragoko bueltan, Urtzoko esaten dioten horretan.

* * *

Hurrengo pasadizo hau geroago gertatua da. Ni Ondartzan nintzen aspalditik. Ez dakit gure aita ordurako hila ez ote zen ere.

Gure inguruko gizon bat gaixo zegoen, eta don Lorentzo, Asteasuko erretore zena, hari lagun egitera joan eta etxera berandu omen zetorren. Guardasola eskuan zuela, esaten zuen.

Eta bidean zetorrela, sorgin bat hiru bider atera omen zitzaion: lehenengo aldiz, gure etxea, Ondartza, baino goragoko Mandaska-zuloan, Urkizarko oilo-etxeko parean; hurrena, Aitzeko harrobiaren ondoan; eta hirugarrena, Arbiden, Asteasuko sarrerako bueltan.

Aurrean jarri eta egon egiten omen zitzaion. Apaiza mar-txa handian hasten zen, sorgina pasako ote zuen, baina hura beti aurrean. Izututa heldu zen etxera.

Beste apaizek hala esaten omen zioten biharamunean:

–Guk aditu izan dugu, ebanjelioak dituen liburua irekiz gero, sorginek alde egiten dutela. Zergatik ez zenuen ireki ba?



–Hara ba, liburua baneukan, baina ezta gogoratu ere.

Meza-liburua meza ondoan aldarean zabalik utziz gero, elizan sorginik bada, ezin aterarik gelditzen dela esaten da, eta hala egin zuten hurrengo igandean.

Eta bigarrengo mezan, zortzietakoan alegia, herriko atso zahar bat elizatik ezin aterarik gelditu zen. Orduan jakin zen atso hura sorgin bihurtu zela, eta don Lorentzori bidera atera zitzaiona ere bera zela.

Harrezkero don Lorentzo gaixorik egon zen franko denboran. Lorik egiten ez zuela ere, ez dakit zenbat denbora pasa zuen. Azkenean, medikuak jaioterrira bidali zuen, bolada bat han pasa zezan.

Gure sukaldean kontatzen zuen gero bere gertaera hori, eta guk esaten genion:

–Esaera zaharra da ba, don Lorentzo, sorginik ez denik ez dela esan behar, baina denik ere ez.

Eta don Lorentzok esaten zuen:

–Ni larri ibili ninduten ba!...

* * *

Mateo Txisturena ere esaten zuen gure ama difuntak.

Aita falta omen zen, eta ez zela ageri-eta, omen zegoen leiho-zulotik begira, eta halako txistu ikaragarri bat aditu omen zuen, eta gero txakur txiki bat “*yeu! yeu!*” eginez goitik behera zetorrela, eta haren atzetik beste zakur ikaragarri handi bat “*uaau! uaau!*” eginez.

Ilargi argi-argia zegoen, eta hurrena ehiztaria bere eskopetarekin *yixt!* pasa omen zen.

Aita kanpoan, eta oso estu gelditu zen gure ama.

Handik pixka batera sartu zen gure aita eta hala esan zion:

–Hau ikara pasa dut, Pello!

–Zer ba?

–Ez al duzu ezer ikusi?

–Ez nik. Txistu izugarri batzuk aditu ditut baina ez dut ezer ere ikusi. Txakur txikiaren zaunka eta zakur handiaren zaunka ere sentitu ditut. Horien atzetik ehiztaria ibiltzen dela esaten dute, eta Mateo Txistu izango zen.

–Bai, atzetik pasa da ehiztaria ere.

Gero berehala zabaldu omen zen Mateo Txistu pasa zela.

Haren istorioa esaten dute: meza ematen ari zela, zakurrek erbia zutela eta meza utzita erbiarengana joan zen; eta sententzia eman ziotela, guk aditu izan genuen, beti horrela ibili beharra mundua mundu den arte.

Haize ikaragarria ekartzen omen du bera bertara baino lehenago, arbolak eta etxeak botatzeko modukoa.

Eskopeta hola tente-tente jarrita eramaten omen du.

Bi zakur ibiltzen ditu beti: bat txikia eta bestea ikaragarri handia.

Orain konparazio batera *“yau! yau!”* hemen, eta hurrena *“yau! yau!”* urruti. Hura *yiiiiiii!* joaten omen da.

Amerikan ere ibiltzen dela esaten dute. Agudo joango da hura, bai! Mundu guztia korrituko du.

Makina bat holako aditzen zen garai batean. Orain gutxi aditzen da. Parte gaiztokoek indar gehiago izango zuten orduan.

KONPORTAKO MORROIA

Gure errotako botanaren izkina guztian muxikak ziren, eta gu, ume denak, haiek jatera joaten ginen. Egun batean, ordea, gure aitak denak ipurditik moztu zizkigun.

Halako muxika ederrak ziren eta gu negarrez egon ginen. Aitari esaten genion:

–Zergatik moztu ditu?

Eta hark, umeei beti kasurik egin nahi izatea alferrik zela, eta bat edo bat putzura erori eta ito egingo zela, eta horregatik moztu zituela.

Izkina guztian harlauza zen, eta egun batean Konportako morroia –Alejandro zuen izena–, harlauza hartan eseri eta hankak garbitzen ari zela, putzura erori zen.

Ni antsia-soinua aditzen hasi nintzen, eta hala esan nion amari:

–Hor izugarrizko antsia-soinua aditzen da, ama.

Astelehena zen eta hala erantzun zidan amak:

–Bai, Konportan sagardoa saltzen hasi ditun, eta atzo sagardotegian sartutako mozkorren bat izango dun.

–Ez, antsia tristeak dira.

Eta botanara joan eta txapela bakarrik ageri zen.

Gure aita ohean zen, baina hura aditu zuenean ohetik saltatu eta korrika joan zen. Eta zer egin zuen? Asto-soka gerrian lotu zuen, eta gero hola esan zigun:

–Orain firme eutsi honi!

Eta putzura saltatu zen. Gure aita txikia zen, eta hura, berriz, mutil handia. Herioan zen gainera, eta gure aitari heldu eta larri ibili zuen. Jendeak sokari tira ez balio, aita galdu egingo zuen.

Atera zutenean, zerbait ere esaten zuen; baina urez betetzen hasia zen, eta gure aitak atera ez balu, ez zen luzaro biziko. Hark etsi zuen, bai.

Gero ondorenean "zuen asto horri horra gabe kontu egion" esaten bazidan, nik hola erantzuten nion:

–Nik piztutakoa haiz gero!

Ni akordatu bainintzen, eta hori esanda lotsa egiten nion.

SAN MIGEL

Bazen herrian indiano zahar bat, eta hark gure aitari esan zion ea San Migela lagun egin nahiko zion.

Gure aitak baietz; ez zela behin ere izan, baina sumatuko zuela.

San Migel bezperari “Absoluzio eguna” esaten zitzaion⁵. Guk beti hala aditu genuen Leitzan gero ere: “Absoluzio gaur da”. Inon absolbitzen ez ziren bekatu guztiak egun horretan han barkatzen ziren. Eta han izaten ziren indiano zahar guztiak.

Asteasuko indiano zahar gizarajo hark ere edukiko zuen nonbait mordoxkaren bat, eta gure aita lagun hartuta joan zen.

Nire gizonari gero aditu izan nion gaztetan Nafarroako mendi horietan zerran aritua zela, eta egunez, hemen zakurrak bezala, han otsoak ibiltzen zirela despazio-despazio. “Hara! Hor otsoa zoak!” elkarri esaten aritzen omen ziren.

San Migel induljentziaz betea omen zegoen. Baina grazia-rik handiena Goñiko zaldunaren kate hura bera ikusteak eman omen zion gure aitari. Lodi-lodia zela esaten zuen, eta ez zeukala gizarajoak arrastaka berehala urraturik.

Han zulo bat oso itsusia omen dago, begiratzeak ere ikara ematen duena. Hango batek hala esan omen zion:

–Hemen orain leihoa dago, baina esaera zaharra da eskola-maisua bere umeekin zulo honetara sartu eta gehiago ez zela ikusi.

Herensugea handik ateratzen omen zen.

Gure aitak kontatu zuen izan zela gizon bat Goñiko zalduna esaten ziotena, eta soldadu joan omen zen; eta soldaduskatik etorri zenean, bidera norbait atera eta hala esan ziola:

–Familia ikusteko pozean bahator hi ere! Ez habil alferrik! Hire andrea ordu honetan ere holako beste gizon batekin ohean zego.

Sartu omen zen etxean, eta aita eta amak, bere gurasoak, bera joan zenez gero haren ohean lo egiten omen zuten, eta han bere emaztea beste batekin zegoelakoan, *ras!*, biak ezpartekin hil omen zituen.

Handik atera zenean, andrea buru-suilarekin iturritik zetorela topatu zuen.

–O! Non zinen?

–Uretan.

–Orduan izugarria egin dut! Hau eta hau eta hau pasa da.

Gero konfesatu omen zen, eta sententzia eman omen zioten kate hura urratu arte mundurik mundu eskean ibiltzekoa, eta hala omen zebilen.

San Migeleko horretan herensugea omen zen. Hark noizean behin pertsona bat behar izaten omen zuen. Orduko jendea oso atrasatua zen, piztia hura ez zen xamurra egongo, eta usadioa hala omen zen.

Egun batean, Goñiko zaldun gizarajo horrek neskatxa bat negarrez topatu zuen bidean, eta hala esan zion:

–Zer duzu, neskatxa?

–Jauna, nire sententzia atera da eta herensugearen atzaparretan hil beharko dut.

–Ni munduaz aspertua nago; ni jarriko naiz zure orde.

Hala, bera jarri zen. Eta herensugea zulotik atera eta estutu zuenean, Aita San Migeli eskuak goratu eta hala eskatu zion:

–Aita San Migel, anpara nazazu!

Eta Aita San Migel azaldu, aurrena herensugeari lepoa kendu, hurrena berari katea moztu, eta barkatuta utzi zuen.

Gero hurrengo egunean, ingurumari guztian, ezkila denak beren gisa jotzen hasi ziren. Zer pasatzen ote zen denak gal-

dezka, eta inork ez zekien ezer. Baina Goñiko zaldunaren andreak hala esan omen zuen:

–Gure etxean bart gaueko ostatu eskean aitona bat bazen. Gure neskek ez zuten nahi ematea, eta nik, berriz, esan nien, “gurea ere nonbait ere hor ibiliko dun”, eta ahuntzaren ondoan jarri genuen.

Hura esan zuenean, joan omen ziren, eta aitona hura hilda omen zegoen. Eskuan paper bat omen zeukan. Denek tiratu omen zioten, baina inork ez zion papera kentzen, eta andreak kendu omen zion. Paper hartan esaten omen zuen Goñiko zalduna zela eta San Migelek nola barkatu zion.

Gau hartan bertan bere etxera joan hura, eta etxeok ez ezagutu.

Istorio horiek denak gure aitak handik etorri eta esplikatu zizkigun. Ni artean hamar-dozenaren bat urteko neska koxkorraren nintzen.

Oso pozik egin zuen gure aitak San Migeleko buelta hori: paraje hura ezagutu, jan eta edan ondo egin...

Ba omen ziren gehiago ere indiano zahar galantak. Hala esaten zuen gure aitak:

–Baziren deskarga ederrak egin zituztenak han, bai!⁶

MEZA-DIRUA

Orain ere, herri txikietan, mutilen bat edo nes karen bat ia hilean baldin badago, aurrera edo atzera egin dezan, auzoko emakumeren bat etxez etxe ibiltzen da meza baterako dirua biltzen. Neroni ere horretan ibilita nago.

Zizurkilen mutil koxkor bat gaixorik zegoela eta neska bat ibili zen meza-dirua biltzen.

Handik egun gutxira, aita errotarria pikatzen ari zela, gure etxe ko atarira azaldu zen neska hori.

–Zer? Diru asko bildu al huen?

–Bai, lotsa ederrak pasa nituen.

–Zer ba?

–Bai, gutxi ematen zidaten besteek, eta poza neukan apai-zengana joateko; eta joan eta haiek gutxiena eman.

–Zenbat eman din ate ba?

–Zenbat? Bikarioarengana joan eta kuarto bat eman zidan; Endaiagana joan eta honek ere beste kuarto bat eman; gero fraideagana joan eta honek purrestada batez “orain ere eskean?” esan eta ardita eman.

Bikarioa, Lakatxe, Sorabillako semea zen; Endaia koadjuto-rea zen, eta hirugarrena, berriz, garai hartan Zizurkilen bizi zen fraide zahar bat.

Bi kuartorekin txanpon bat egiten zen, eta ardit bat gehia-gorekin hamar marabedi.

Eta gure aitak esan zion:

–Kantak jarri behar ditinagu.

Hala, kantak inprentatu zituen, eta jendeak ere pozik erosi holako paperak.

Ni neska koxkorra nintzen. Astoari kontu egiten egoten ginen gure etxe gaineko mendi-kaxkoan. Asteasu eta Zizur-

kilgo apaizek, berriz, kamioz paseoan etorri eta Konporta etxeko atarian bilera egiten zuten.

Gu, umeak, apaizak ikusi eta bertso horiek kantari hasten ginen. Apaizek aditu eta eskuarekin jotzeko desafioa egiten ziguten, eta gu orduan ezkutatu. Gero, Zizurkilgo apaizik ikusten bagenuen, itzuli korrika abiatzen ginen.

Gaixorik zegoen mutilari on egin zion mezak. Sendatu egin zen, baina orduan hil izan balitz, hobe.

Ama ere ez zuen erreminta ederra, eta bera ere ez. Ezkontzean amarekin haserretu zen. Honela zioen egun batean:

–Nire ama Agaitzko zubipean⁷ urak eramaten ikusiko banu, a zer poza hartuko nukeen!

Denboraz, amari deseatzten zion toki hartan bertan bera erori eta urak eraman zuen. Ez dakigu nola erori zen, baina hor behinik behin erori zen eta hor ito zen. Gorputza ere nekez aurkitu zuten.

Gogoan ditut oraindik ere bertso batzuk:

*Emakume bat juañ zan
bildutzera meza,
gaizki dagon argatik,
senda al baleza.
Sazerdotenganako
ark zedukan poza!
Ez da bueltatua
juañ zan bezin lasa.*

*Guk egingo bagiñu
orrelako lanak,
ots egingo lituzke
kulpitotik danak.
Bost ikusi bear du
allegatzen danak,
kuarto bat eman dio
bikariyo jaunak.*

*Juan zan beste sazer-
dotiarengana,
errezibitutzera
eskeintzen ziyona.
Aditzerak baditut
ez dala urtu dana;
ark ere kuarto bat
omen du emana.*

*Ara nun pasa zaigun
komeri polita,
gauza arrigarriya
pentsatzen jarrita.
Lotsa artu lezake
orla ibillita,
purrustara eginda
prailliak ardita.*

*Zeñek nun aditu du
oinbeste komeri?
Ejenplua ematen
ai zaizkigu guri.
Sokorrua egiteko
premi duanari,
berak, iru apaizek,
amar marabedi.*

*Jateko ez zeukanak
lakari bat arto,
txanpon bat gutxienaz,
ori zan zierto.
Meza osatuko bazan
norbaitek biarko,
sazerdote jaun oiek
ardit eta kuarto.*

*Eskeñitzen bazaie
meza merke antza,
buruari eragin
aguro balantza.
Txikiyai utzi eta
aundiyai arrantza,
beragatik daukate
oraingo mudantza.*

*Kulpitotik otsegin:
"Ein karidadia!".
Berak jeneralian
gordetzeko idia.
Kuadrilla ori etzegon
dirurik gabia,
obeto portatu da
jende menoria.*

“LARRU GORRIAN...”

Hurrengo bertso hauek Donostiako Teatroan nik neronek adi-tuak dira. Hamasei bat urte izango nituen nik orduan.

Ameriketan hil zen ahizpa eta biok, aitag pagatu gabe sartu gintuen, eta goi-goian egon ginen bertsoak aditzen.

Aurretik esan ziotena harrezkero nonbait ere aditu izan dut, baina orain ez daukat gogoan. “Zer moduz bizi zera” edo holako zerbait zen⁸.

Eta gure aitag bi bertso hauekin erantzun zion:

Larru gorrian jaiο nintzan da

ez det aberastasunik,

nigatik eztu iñork esango

kaballerua naizenik.

Gure Jainkuak gau eta egun

ez dit palta osasunik,

tamaña onetan naizen artian

ez daukat estuasunik.

Lenago esan det jaiο nintzala

ni ere larru gorriyan,

mundu onetan ez naiz bakarrik,

beste askoren neurriyan.

Ziudade ez da aundia agertzen

Astiasuko erriyan,

bolara ontan bizitutzen naiz

oso kontentu aundiyan.

“GIZONARI EGIOZUE ONDO”

Arrats batean euria ikaragarri txarra botatzen ari zen, eta hai-zea ere izugarria zen; denboralerik beltzena alegia. Ilundu eta gero zen, eta gure aita Zizurkildik zetorren, astoa aurrean zuela, dena blai-blai eginda, gizarajoa.

Eta Konportako parean pasatzean, hango ateetan antsia aditu zuen. Antzeman zion han gizona zegoena, eta hola esan zion:

–Zer egiten duzu hor?

Erdalduna izan, eta erdaraz erantzun zion: ez ziotela han lekurik ematen eta hantxe ito beharko zuela.

Gure aitak berari segitzeko esan zion, eta etxera jaso zuen. Sartu eta guri honela esan zigun:

–Ea, gizon honi zer edo zer, alkandora lehor bat edo, emaiozue.

Baina hark ezetz esan zuen, aldatzeko arropak berak ibiltzen zituela.

Gure errotak toki txikiak zituen, gerontzat ere nekez, baina gure aitak errotara ekarri zuen.

Konportan, berriz, horrenbeste handiko etxea izan, eta bazuten ba hainbeste toki, baina ez zioten eman. Hango beheko atean eman ez ziotenean, mandioko atearen kontra jarri omen zen, eta han zegoen, euriak itotzen, gure aitak jaso zuenean.

Goiko ganbaran jarri zuen gaua pasatzen, mantarekin eta ahal zuen bezala.

Hurrengo goizean eskerrak ematen hasi zitzaion: halakoa-ren beharra bazuela, bestela han hil beharko zuela...

Eta gure aitak galdetu zion:

–Zer duzu izena?

–Fabian.

–Nik sartu zintudan *gabian*.

Eta hurrena:

–Zer duzu apellidua?

–Gil.

–Nik sartu ez bazintut, hil.

Gizon hark esan zuen eskean ibiltzen zena zela; emaztea hil, bi semerekin gelditu, eta haiek eskolan zeuzkala; beste aldera irabazi handirik ez zuela, baina bera ibilkari handia zela eta eskean asko biltzen zuela; halako eta halako tokitatik, Egu-berrietan eta, dirua bidaltzen ziela semeei.

Ez zen hain zaharra ere. Oso gizon polita eta txukuna zen, ez holako zorritsu horietako bat.

Zaku bat ibiltzen zuen burutik sartuta, atzean eta aurrean poltsa handi bana zuela. Poltsei *mi maleta* deitzen zien. Arro-pak ez ezik, han eramaten zituen bere lapikoak, zartaginak, olio-ontziak eta denak.

Egokitzen zen tokian biltzen zuena berak maneatu eta jan; ilunabarrean bazterren batera arrimatu eta lo egin. Hola bizi omen zen.

Gero dirua sobratu semeei bidaltzeko. Horietan ere, eskekoak izanagatik, gordetzen dutenak ere izaten dira.

Harrezkeroztik askotan etorri ohi zen gure etxera eskerrak ematera.

Bai, gure aitak pobreentzat bazuen gogoia. Ijitoek ere maite izaten zuten hura; ez dakit non ere kasu egin ziotela esaten zuen.

Hark ez zuen, beste batzuek bezala, kanpoko bat ikusi eta hura jo egin beharra. Errezilen omen zen, garai batean behinik behin, jenio hori: kanpoko bat ikusten bazuten, erremedio gabe jo egin behar. Festara ere joan eta:

–Zer festa-modu ikusi duzue?

Eta:

–Hutsa, borrokarik ez duk izan eta hutsa.

Hark, berriz, beti esaten zigun:

–Gizonari egiozue ondo! Beti egiozue gizonari ondo! Etorriko zaizue handik edo hemendik ondo eginarena, baina bai gaizki eginarena ere.

Bai, hark familia kristandadean hazi zuen, eta kreditu txarrik ez zuen utzi.

Gure aita gizarajoak ez zuen pobrea izatea besterik.

AIAKO APUSTUA

Behin batean Aian apustua zen, Asteasuko Ibarrazpiko behiak eta Aiako idiak, eta hara joan zen gure aita ere.

Hasi zen proba. Asteasuko behiek indarra ba omen zeukaten, baina etxeko itzaina zuten, eta hark ez eragiten, ez zien ez minik eta ez beldurrik ematen. Kanpoko itzaina izan balute, joko zituen, baina etxeko behiak izan, eta animaliarik ez jo nahi.

Hola, behiek galdu zuten apustua, eta Asteasu guztiak diru franko ere bai.

Proba bukatuta, gure aita tabernan zegoen, triste noski, dirua galdua.

Eta aiarrek kantatzeko esan zioten.

Gure aitak, berriz, hala erantzun zien:

–Nituenak ez ditut, eta ez dut kantatzeko batere gogorik.

Baina kantatzeko eta kantatzeko ez zitzaizkion isiltzen, eta bertso hau bota zuen:

*Kantatuko'izuet bañan
ez oso umorian,
gizona tristia dek
galdu ondorian.
Etorri gaituk zerbait
eiteko idian;
lapurrik ateratzen
bazaigu birian,
marabedirik eztek
nere poderian.*

Orduan gizon batek hala esan zuen:

–Pello, marabedirik ez baduk, jar ezak txapela.

Bai hark pozik jarri eta pasa ere, eta galdu zuen baino diru gehiago bildu zuen.

Hurrena, berriz, behi haiek Andoainen izan zuten proba, kanpoko itzainarekin ordea, eta erdi denboran irabazi zuten.

Zetazko zinta gorriak adarren puntan zituztela ekarri zituzten Asteasura.

FIDEL LIZARRAGA

Behin batean Fidel Lizarraga hori Asteasura zetorren bere zaldi, eskopeta eta guzti. Gure oilarra eta oiloak han ageri ziren, eta tiroa tira zion oilarrari, eta mokoan eritu zuen.

Ez zion egin esateko ezer, baina gure ama armonian hasi zen. Eta gure aitak hala esan zion:

–Ixo gizon horiekin. Oilarragatik ez kasurik egin.

Etorri ziren gero Asteasutik bueltan, eta hola esan zion Fidel Lizarraga horrek gure aitari:

–Pello, oilarra eritu ta meriendarik gabe.

Eta gure aitak:

–Tiroa gastatu ta hori ez da hobe.

Orduan Lizarraga horrek dirua eman zion, duro bat edo. Orduko duroa handia zen. Edo bi eman zizkion ez dakit.

Kontentu gelditu zen gurea, oilarra etxean eta dirua patrikan zuela.

Lizarraga hori oso aberatsa zen. Ia Villabona guztia berea zuen.

Harena zen Irurako Ama Birjina Erremedioetako ermita. Orain etxea dago egina, baina lehenago xoxa botatzen aritzen ginen. Ermita hura hark jarria zen.

Hark bazuen fedea. Fedeak obrak behar ditu, eta hura Herniora bazihoan ere, patrika guztiak diruz beteta eramaten zituen. Orduan milaka pobre egoten zen bide-bazterretan. Orain ez da egoten, baina orduan inbalido guztiak egoten ziren. Eta denei ematen zien, patrikak hustu artean.

Bai, oso-oso limosneroa zen, eta Villabonan pobre guztiek negar egin omen zuten hura hil zenean.

Baina Villabonan, apaizari erresposta eman ziolako, ez zeukan hark hango kaperan sartzeko ordenarik.

Villabonako eliza Amasan zegoen orduan. Behean, orain plaza dagoen tokian, halako kaperata txiki bat zen. Han meza ematen zen jaietan, eta meza entzutera hara joaten zen jendea. Bigarren meza bederatziatan zen.

Bera meza ematen eta bera sermoi egiten izaten zen, eta egun batean, sermoia hasi zenean, hola esan zion Lizarraga horrek:

–Berriketa gutxiagorekin segiozu zure lanari!

Eta apaizak:

–Zer da hori hemen? Atera gizon hori!

Lizarraga hori diputatua zen. Villabonan zen aberatsena ere bai. Baina hark sententzia omen zeukan bizi zela ez Villabonako kaperan sartzeko. Ez zen sartu ere bere denbora guztian gehiago. Ea errespetua zen edo ez zen orduan!

Izeba eta arreba edukitzen zituen etxean. Bera mutilzaharra zen.

Behin batean gure aitak haiei garia erosi zien. Eta galbahean garia garbitzen ari zela, berebiziko zilarrak aurkitu zituen. Bat edo batek gari pilan gordeak zeuzkan.

Hala esan zuen gure aitak:

–Zilarra ere sobran al dute? Guk ez ba!

Berriz ere joan zen gure aita Lizarragaren etxera, batere behar ez zuela, garia erostera, baina gehiago ez zuen bilatu. Aurrenekoan ziren zilar denak.

VILLABONAKO JIBOSO BATI

Villabonan ba omen zen gizon jiboso bat, eta hura gure aitari isiltzen ez zitzaion bertsoa botatzeko eta botatzeko.

Gure aitak hala esan omen zion:

–Nik esana libre dut, eta ez noa botatzera.

Eta hark:

–Ez dio inporta, Pello.

–Ez al zara haserretuko?

–Gizona! Bertso batengatik haserretu behar al dugu ba?

Gizon jiboso hura ezkonberria zen. Emaztea haur egiteko omen zeukan, eta gureak bertso hau bota zion:

*Matrimoniuk badu
amaika lardaska,
zure andre gaxuak
ixtilluak dauzka;
ibilli biarra da
marruaz ta oska,
zuk bezela badakar
bizkarrian koska,
uste baño azkarrago
libratuko ezta.*

Izugarri haserretu omen zitzaion gizon hura, baina ez gure aitak jakinaren gainean jarri ez zuelako.

ASTOAREN PASADIZOA

Egun batean, astoarekin zetorrela, Alkanitzen sartu zen gure aita, pipa piztu eta berriketa pixka bat egitera. Ez ziren parienteak, baina familiakoak bezala tratatzen ginen.

Alkanitz etxe hori Zizurkilgo partean dago, Asteasuko kamiotik lehendabiziko etxea ezkerretara.

Astoa Portxetaren estalpean utzi zuen. Portxeta nagusia zen. Orain ere horrela deitzen diote estalpe horri.

Eta etxe hartan zela, zer egin zioten? Astoak gainean zeukan gari-zakua, asto-sokak, kabestruak, kate eta zera denak ostu egin zizkioten.

Etxera etorri eta gertaera horren gainean bertsoak jarri zituen.

Horietako batzuk badakizkit:

*Pipa piztutzen nitzan
Alkanitzen sartu,
Portxetan estalpiari
astua geratu,
gurdiari ezpatari
katez amarratu;
geienaz pasa nitun
amabost minutu,
guardiari zegoanak
artu zidan kontu.*

*Gauzaen baliyuak
ziraden aundiyak:
iru pezta pasiak
asta soka zuriyak,
bizkarreko zakuko
amabost gariyak...
Pobria luzitzeko
ai zer alderdiyak!
Au etzuan merezi
Pello Errotariyak.*


.....
.....
*zakua eta soka,
kate ta kabrestu,
bat ere utzi gabe
astoari ostu;
ori egin duanak
barren txarra eztu,
ola gizon pobria
nola aberastu?⁹*

Alkanitzen ondoko etxe batean, Saluaten, pobreak bizi ziren eta hango errezeloa edukitzen zuen gure aitak. Aldame-neko beste etxe bat Altziturri zen, baina aberatsak ziren eta hango errezelarik ez¹⁰.

Baina Ameriketara joan zenean, topo egin zuen behin batean Altziturriko morroia. Hura ere hara joana izan.

Morroi horrek honela esan omen zion:

–Pello, zuri ostu zizkizuten ba astoaren gaineko zera denak...



–Bai, hala ostu zizkidaten.

–Ba al dakizu nork ostu zizkizun?

–Nork? Saluateko *Ipurtxulok* seguru asko.

Hala zuen izengoitia etxe hartako gizonak.

–Ez, Saluateko inork ez zizkizun ostu.

–Nork ostuko zizkidan ba? Erdi goseak ibiltzen zen hura eta...

–Ez ba, ez. Nik ostu nizkizun.

–Zuk? Zer ba?

–Badakizu ni Altziturriko morroia nola nintzen. Baina etxe hura, ona izanagatik, gainbehera hasia zen. Eta nagusiak hala esan zidan: “Aizak, Pello Alkanitzera pipa piztera joango duk, eta astoak gainean daukan anega eta erdiko zakua ostu iezaio. Bizkarrean hartu eta ekar ezak etxera. Emango geniake zerbait hiri ere. Beste baten errezeloa igual egingo dik, eta sokak eta kabestruak eta denak ostu behar dizkiok”. Eta halaxe egin nizun.

Geroztik gure aitak guztiz damu zuen Saluateko errezeloa egina, eta halaxe esaten zigun askotan:

–Ez dezazuela sekula inorentzat errezelo gaiztorik egin!

BI TRATULARIRI

Behin batean bi tratulari aurkitu zituen gure aitak, eta hola galdetu zien:

–Zer moduzko feria izan da?

Bi gizon haiek koaitak kontatzen hasi omen zitzaizkion: ez zegoela irabazterik ezer, feria txarra izan zela, eta horrela.

Gero, bertsoa botatzeko esan omen zioten.

Eta hainbeste koaita kontatu ziotenean, gure aitak bertso hau bota zien:

*Pobre ta aberats, zar eta gazte,
maiztar eta nagusiyak,
ez gaitzala iñor despreziatu
Jaungoikuaren grazियak.
Zertako dira mundu ontako
tratu ta irabaziyak?
Ementxe utzita joanak dira
oraindañoko guzियak¹¹.*

GURE AHIZPA JOXEPA IÑAXI

Gure ahizpa Joxepa Iñaxi senideetan bigarrena genuen, eta bertsoan zekiena zen.

Garai hartan Asteasuko plazan bi sagardotegi ere baziren. Sagardorik ez genuen etxean, errotan, eta kaletik eramaten genuen. Ni ere joaten nintzen.

Gure ahizpa hori sagardo eske joango zen, eta han bi mutilzahar bertsoan ari omen ziren.

Aitaren gainean edo ariko ziren, eta orduan gure ahizpa horrek bertso hau bota zien:

*Bertsotan ari dira
bi galtza-jariyo:
bat.....¹²,
bestia Antoniyo;
jendia emen dago
oik diala meriyo,
aita guriarentzat
ez dute baliyo¹³.*

Baina hogeitertietik aurrera asko ez zuela, Ameriketara joan zen, Argentinara. Orduan neskakua kuadrillak joaten ziren, eta hura ere bere neskakua lagunekin joan zen.

Orain hemen edozeinek hogeituro dauzka, baina orduan ez zen hemen hogeituro pezeta irabazteko kozinerarik ere, eta han, berriz, asko irabazten omen zen.

Hogeituro irabazten zuela abisatu zuen, eta gure aitak, egun batean tolosar batekin hizketan ari zela, hala esan zion:

–Hogeituro gureari jarri dizkiote.

–Zureak hogei baditu, nireak hogeita hamar izango ditu.

–Zergatik ba?

–Nik ikasia bidali nuen eta...

Nik gero ahizpari abisatu nion zer esan zion beste hark gure aitari, eta hala erantzun zigun:

–Bai, ikasita datorrenak hogeita hamar duro ere baditu, baina “*se gana pero se gasta*”. Alegia, lo eta dena kanpoan egin behar zela, eta irabazi ahala gastatzen zela.

Hark ni hara eraman nahi ninduen, baina niri ez zitzaidan gogorik egiten, eta bakarrik ezin joango nintzela esaten nion.

Bertsoa ere bidali zidan:

*Nere aizpa Mikela
nik abixaturik,
eztuela etorri nai
birian bakarrik;
eztet nai eukitzia
etxian negarrik,
or gelditzen bazera
zeretzat alperrik.*

Nik, berriz, honela erantzun nion:

*Aizpa, bialtzen dizut
orren errespuesta,
oraindik ni juatia
seguruba ezta;
orrenbeste enpeñoz
gelditzia gaitz-ta¹⁴,
akaso juango naiz
mudakorra naiz ta.*

Ameriketara joan zenean, aitak ekarri nahi izan zuen, baina hark ezetz. Ezkontzeko baitzegoen orduan.

Gizona gallegoa izan zuen: Agustin Primor.

Seme-alabak izan zituzten. Alaba komulgatu zenean, bere komunioko jantziekin erretratuak bidali zizkigun. Baina hemezortzi urterekin, eskaileretan erori eta hilda gelditu zen, lepohezurra hautsita.

Senarra ere hil zitzaion, eta gizona eta alaba zeuzkan sepulturaren erretratua ere bidali zigun. Denak bazituen, baina...

Semeak andre gazte gallegoa hartu zuen emazte, baina gure modukoa ez zela esaten zuen. Gure ahizpa hori oso erlijioso zen, eta erraina ez. Gure ahizpak egiak garbi esaten zituen, eta errainari egia esaterik ez gustatzen. Hura hemen zelarik, egunero elizako buelta egingo zuen, eta han ere bai. Baina apenas joango zen haren errainik.

Guk hemendik bidalitako kartak errainak gelditzen zituen, eta gure ahizpari eman ez.

Triste bizi izan zen hura.

Abisatu genion hona etortzeko, baina alaba lur hartan zeukala eta ezetz erantzun zigun.

Denbora luzean haren kartarik gabe geunden. Nik bane-kien herriko alaba bat han aberatsa zegoena, eta haren seña bildu eta hari abisatu genion nola ahizpak ez zigun kartarik bidaltzen, eta ea zer moduz zegoen.

Eta señoira hark eskribitu zigun hila zela. Nik bezala, bista falta zuela, eta han norabait zihoala motoak jo eta bota zuela, eta hartatik hila zela. Ni motoak bota eta bizirik atera nintzen, baina hura motoak bota eta hila omen zen.

ANAIAREN SOLDADUSKA

Besteak ordurako hilak ziren, eta Miel Anton genuen orduan anaia bakarra.

Eta kinto-eguna etorri zitzaion. Jai goiza zen, eta Donostian tiratzen zituzten suerteak.

Ama ez zen gauza elizara ere joateko, eta beldurrez eta kezketan zegoen.

–Hau lana! Seme bakarra etxean, eta orain zer ikusi behar dugu? –esaten zuen.

Aita, berriz, bezperan nonbait ere kanpoan izana zena badakit, eta artean gaita txarrean zegoen. Eta jaiki baino lehen, ohearen izkinan jarri eta bertso hau kantatu zuen:

*Nere etzan-lekua
izango da oia,
emendik egin biar
lenbizi pregoia:
eztakit dedan poza
edo dan jipoia,
libre ateratzen bazat
ilko det kapoia.*

Baina egun hura joan zen, hurrengo ere bazihoan ezeren berririk gabe, eta triste horratik gure aita ere.

Esan nion:

–Ez da ageri notiziarik, aita.

–Ez. Etxera etortzeko beldurrak egongo dun gizarajoa, gatibu aterako zunan eta...

Hala, aita eta ama eta denak oso triste ginen orduan.

Astelehen gauean bageunden, eta Larraulgo mutil gazte batek, atea ireki eta bera sartu baino lehen, muturra besterik sartu gabe, hots egin zuen:

–Pello, semea libre dela!

Poza ematera bera baino lehen etorri zitzaigun. Jesus! Ez zen gure etxean orduan ezeren faltarik!

Gero anaiak kontatu zigun ingurukoak bi gelditu zirela libre: bat Zizurkilgoa eta bestea gurea.

Mutil batek esaten omen zuen:

–Nik ez diat gatibu aterata ere axolarik.

Eta lepoan pañelu gorria jantzi eta filarmonika joz kalerik kale omen zebilen.

Gurea libre eta bera gatibu gertatu zirenean, orduan negarra eta marru.

–Non dituk lehengo harrokeriak? –esan zion gure anaiak.

Behia baino lehen zintzarriak. Horixe!

Kastillano soldadu pobre asko omen zegoen kuartelean, eta libre atera zenean, bere pozarekin, zituen diru guztiak eman omen zizkien.

Orduan herriko kamioa egiten ari ziren, eta gure etxean gizon asko zegoen apopilo, errezildarrak eta. Eta zelebratzeko, berebiziko festa eta banketea egin genuen denen artean. Boda bat baino gehiago kasik. Eta kapoi bat baino gehiago hil genituen.

Gure anaia hori bertsolari ikaragarri ona izan zen, herri-rik herri ibiltzen ez bazen ere. Oso etorri onekoa. Ordurako ariko zen eta aita-semeak botako zizkieten elkarriz bertso eder askoak, baina gogoan hartu ez guk.

NIRE EZTEIETAN (1893/10/14)

Urte hura oso sagar-urte handia zen, eta nire nobioa, Antton Kortajarena, Tolosara egunero joaten zen Asteasuko sagardoa idiekin eta gurdiekin eramatera.

Orduko ezteietan, zahagi-ardoa aitajaunak pagatu behar izaten zuen, eta honek hala esan zion:

–Aizak, alondegiaren atarian han utzi diat zahagia, eta hurrena Tolosara idiekin joaten haizenean, hartu eta ekar ezak.

Baietz, ekarriko zuela, eta egun hartan bertan joan zen ekartzera. Bi zahagi aurkitu zituen, paper bana gainean zutela, pasea alegia, bere izen, apellidu eta guzti. Hark inprentako letra bai, baina besterik ez zuen ezagutzen, eta handiena hartu eta hura ekarri zuen.

Aitajaunak, ordea, txikia pagatua zuen, eta handi hori lbarako erretore-etxerako, elizan hartzen duten ardo klase hori zen.

Nire nobioari berehala kargu hartu zioten herrian:

–Hau ez zuan honako eta nola ekarri duk? Hik kontrabandoa egin nahi huen!

–Nik kontrabandoa ezta pentsatu ere. Aitajaunak utzitakoa ekarri dut.

–Ez, hau ez zuan hiretzat. Han egongo zuan besteren bat.

–Bai, txikiagoa zegoen eta nik handiena ekarri dut.

Aitajaunari ere kargu hartu zioten, baina honek hala esan zien:

–Nik bestea utzi nuen, eta ekartzea zeukan hura.

Ez zen hura txoroa pagatzeko.

Ezkontzeko kasu hori izan ez balu, kontrabandoa egingo omen zioten, baina inozentzian egin zuela jakin, eskolarik ez zuela ere bai, eta libre utzi zuten.

Ibarrako erretoreak batere gabe gelditu beharko zuen. Ez dakit inork pagatu bazion ere, baina ardo hura gure ezteietan edan zen. Azkar gainera!

* * *

Ezkondu behar nuen bezperan, jaiotetxea-eta utzi behar nituela edo nik ez dakit zer nuen, baina tristurak hartu ninduen. Ia egun guztian isildu ez nintzen negarrez.

Nire amandrea bezperan etorri zen, eta nirekin jarri zuten gauean.

Goizean hala esan zion bere ahizpari, nire amari:

–Ume honi zer egin diozue? Ia gau guztian ez du negarrez begirik itxi.

–Guk ez diogu egin ezer ere. Atzoko eguna hola pasa du.

Aitak burla egin zidan:

–Hobe huke astoarekin Zizurkila irinarekin joango bahintz.

–Ea ba, jarri zakuak eta joango naiz –esan nion.

Garai hartan goizeko seietan ezkontzen ziren denak. Ilunpetan joaten ziren. Gu, berriz, hamarretan ezkondu ginen.

Nik azabatxez, alegia perlazko puntillaz, bete-betetako txaketa nuen. Herrian aurrena nik izan nuen. Elizarakoan kristalezko zera haiek eguzkitan *dris-dris-dris* egiten zuten, eta plazan zeudenek hala esan omen zuten:

–Hara, Mikela ber-bertan zegok!

Elizatik atera orduko etxafuegoka hasi ziren. Egund hartan erre zituztenak! Atertu gabe aritu ziren eliz ataritik gure etxeraino.

Gosaria andregaiaren etxean izaten zen. Gogoan daukat guk zer izan genuen: baratxuri-zopa aurrena, haragia tomatearekin hurrena, eta gero gazta zaharra. Edaria, berriz, ardoa.

Arreoa gurdian eramaten zen, eta hauxe izaten zen: ohea, lastaira, sobrakoltxa, sobrakama –batzuek eskutan egindako harizko horietakoa eramaten zuten–, bi almoada, bi silla, komoda, mesanotxea eta baula arroparekin. Usadioa hala zen.

Lastaira ez zen gaurko koltxoiak bezala. Artoaren txurikinez betetzen zen. Gero, bat hiltzen bazen, gorputza ohetik atera, lastaira hura bidegurutze batera eraman, eta han su eman eta erretzen zen. Gero han pasatzen zenak arima haren-tzako aitagurea errezatu behar.

Nik trasteria guztiaren gainean nire josteko makina jarri nuen. Bezpera gaueko hamabietan, hura garbitzen aritu nintzen, biharamunean garbi-garbi eramateko.

Idiak, ahal ziren ederrenak, eta zintzarriekin eta bizkarrean manta borla gorridunekin, ondo apainduak, izaten ziren. Guk Ondartza-barrenakoak izan genituen.

Nobioaren etxera joateko, ezkonberriak, gurasoak, aita-jauna eta amandrea eta denak, gurdiaren atzetik abiatzen ziren. Baita filarmonika ere soinu jotzen.

Esan bezala, kamioa orduantxe egiten ari ziren, eta kapatazak-eta ostatur gure etxean zeuden. Oraindik bukatu gabea zen, baina haiek lizentzia eman ziguten, bide zaharretik joan gabe, kamio berritik joateko. Beraz, nire arreok estreinatu zuen kamioa.

Abiatu bezain laster, etxafuegoka hasi ziren berriz ere. Egundaino baino gehiago erre zela juzgatu zen. Kapataz haiek, berriz, gure mandioa munizioz betea zuten, eta hartu handik nagusiaren munizioak eta haiek deskargak egin zituzten!

Gurdia inoren etxearen parean pasatzean, ezagunak izanez gero, bidera bandeja ardoa eta pastelekin edo ogiarekin ateratzen zuten.

Ailegatu eta arreoa mandioan uzten zen, bazkaldutakoan zabaltzeko.

Orduko ezteiak egun batekoak, bikoak edo hirukoak izaten ziren. Nirea bikoa izan zen.

Lagun asko izan ginen, eta bigarren egunean gehiago oraindik. Gure gurasoek ezagun guztiei deitzea pentsatu zuten. Orduan holako hasiera, eta gero gerokoak.

Egiten zen txahal bat gizendu, eta hura jan bitartean bertan denak. Gurea hogeita bost erraldekoa izan zen.

Zestokada bat oilo baino gehiago ere jan zen. Makina bat ezteitan izan nintzen ni gero, baina toki batean bakarrik hegaztiarekiko ezteiak ezagutu nituen. Oiloa luxua zen orduan, eta hegaztirik gabeko ezteiak izaten ziren.

Orduan, zer zen ere ez zekiten eta, ez ziren entremesak edo itxura gaiztoko jaki horiek izaten. Ia dena okela izaten zen. Guk izan genuen zopa, garbantzua eta azak ere bai odolki pila ederrarekin, gero haragia tomatearekin eta haragia piperrekin –besteetan haragi egosia, frijitua edo gisatua izaten zen, dena haragikia–, gero hegaztia, eta hegaztiaren gainean arrozkoletxe eta gazta zaharra.

Eta hamahiru artoa ardo edan ziren gurean. Tolosatik eka-rritako zahagi galant hura eta beste gehiago ere bai noski.

Sagardoa, berriz, auskalo zenbat. Guk zazpi pezetan erosi genuen gurdi sagarra, baina ona aukerakoa zelako. Urte abundosoan ezkondu nintzen ni.

Ardoa, ez orain bezala litroka, pitxerreko botilak jartzen ziren mahaian. Eta hamar lagun baziren ere, baso bat; baso bat eta plater bat, eta denak batetik aritzen ziren. Baita ezteitan ere. Hemen zazpi lagun baziren, zazpi lagunentzat zera bat jarri; eta han beste zazpi baziren, haientzat beste zera bat jarri, eta horrela.

Bazkalondoan, mandiora joan eta auzoko etxeoandre batek artoa zabaltzen zuen. Gurea Ondartza-barrenakoak, idiak ziren etxeo andreak, zabaldu zuen.

Zabaltzen hasitakoan, arreoaren gainean bandeja bat jar-tzen zen, eta aitak dotea hartan uzten zuen.

Gero, etxeakoandre hark, arropak-eta erakusten zihoan bezala, arreoaren alabantzak egiten zituen:

–Hara hemen gauza ederrak, eta bera ederragoa!
Andregaiarengatik alegia. Usadioa halaxe zen.

Gero, arratsalde guztian, filarmonika-soinua, dantza, ber-tso, nahiko edari... Izaten zen han zernahi festa.

Afalondoan lotara. Hainbeste jenderentzat oherik ez, eta sabaian-eta, mandioan-eta etzaten ziren belarraren gainean. Ondo gobernatuz gero, nonahi ondo lo egin.

Nire arrea mandioan zegoen, eta hala esan zidaten goi-zean:

–Mikela, zure arrea guk estreinatu dugu. Han egon gara denok haren gainean lotan.

Gu larunbatarekin ezkondu ginen, eta biharamunean eli-za-sartzea egin genuen. Hori izaten zen ezkonberriak meza nagusira joan eta beren sepulturan lehengo hilentzat argiak piztu eta ofrenda egitea. Ofrenda ondoren, etxeo hildakoen izenean, apaizak paternosterrak erreztatzen zituen sepultura-ren aurrean, ur bedeinkatua botaz.

Gero bazkaria eta festa berriro, bezperan bezala.

Nire nobioa etxe oneko mutil eder galanta zen, kontrario-rik gabe zegoen pultsularia. Horregatik, elkarrekin tratatzen hasi ginenean, hala esaten zioten gure aitari:

–Hire alaba ez duk hara sartuko, ez.

Ezteietan, berriz, hala esan zioten:

–Orain kontentu egongo haiz, alaba hemen sartuta.

Ni josten ondo ikasia nintzen, baina baserriko lanetan gutxi nekien.

Aitak eta amak kalera ezkontzea nahi zuten, eta hasieran ez ziren guztiz konforme ni Ondartzara ezkontzeaz.

Horregatik gure aitak, horrela tentatu zutenean, bi bertso hauek kantatu zituen:

*Amari esan zion
ezkontza au lenengo,
baserrira joatia
ez zeritzan ondo:
"Arriua besterik
ez diñat emango;
naio nuke, alaba,
ez baziña juango".*

*Aditu zuanian
aman albistia,
alaba au gelditu zan
entero tristia:
"Ama, ez da posible
nik ori uztia,
guztiak kalietan
bizitzen ezta".*

AMERIKETARA (1895)

Amerikano batzuek gure aita bertso kantari aditu zuten hor nonbait. Gustatu, eta hara eraman zuten, Argentinara. Hori 1895 urtean gertatu zen, ni ezkondu eta gero.

Goiko atetik, alegia mandioko atetik, atera zen. Txamarra nik ekarri nion janzteko. Eta nik tira eta hark tira gelditu ginen puska batean. Goiko leihotik begira, berriz, gure ama. Hura ere negarrez. Beste bi ahizpak korajez eta fuerteenak.

Oinez Villabonaraino joan zen eta handik Donostiara trenean. Semea ez du bertsoan aipatzen, eta aitari laguntzen joana izango zen gure anaia.

Oiartzungo anai-arrebak Donostiara atera zitzaizkion.

Bertsoak kartaz bidali ohi zituen. Maiz eskribitzen zigun. Hemendik ere laster erantzuten genion. Baporea nolako zuten, Dakarren nola jo zuten eta beste gauza asko, bertsoan esaten ditu.

Hari kartak bidaltzeko señak hauek ziren: Fonda de Buena Sopa, Buenos Aires, Tandil.

Etorritakoan kontatu zigun bazela han, Buenos Airesen, Calle Buen Orden zeritzaiona, oso kale luzea; egun guztian joan eta joan eta bukatzen ez zena.

Ba omen ziren komentu ederrak ere. Pelegrinazioan ere joan omen zen tokiren batera, eta askotan esaten zigun zer jende izaten zen toki hartan, eta zer funtzio ederrak egiten ziren.

Baina hango jendea hotz samarra omen zen elizako gauzetan. Gure aita elizara joaten zenean, denak atzetik burlaka. Hemendik joanak okerrenak askotan.

Behin batean, elizara zihoala, Zizurkilgo emakume bat topo egin omen zuen, eta honela esan zion gure aitari:

–Nora hoa?

–Elizara.

–Txoratu al zaik? Ni hogeita hamar urte honetan ez nauk elizan sartu.

Denbora gehiago eduki nahi zuten, baina gure aitari apenas gustatu zitzaion hango izatea. Harantzean, hilabete bat; honantzean, beste hilabete bat; eta Buenos Airesen zortzi. Guztira, hamar hilabete etxetik kanpora.

Egun batean jakin genuen Pello Errota Donostian ikusia zutela. Eta egun hartan bertan, ilunabarrean, etxera ailegatu zen. Poz ederra eman zigun!

Erregaluak ere ekarri zituen: erloju handi bat, urrezko erloju txiki bat, eta abar. Handia berak ibiltzen zuen, eta egun batean katea ebaki eta ia-ia ostu zioten. Txikia, berriz, Tolosara konpontzera eramán, eta urrezko minuterota kendu eta ojaltazkoa jarri zioten.

Bidalitako bertso batzuk gogoan ditut:

*Atera nintzarian
goiko atetikan,
Mikela ori asi zan
negar gogotikan;
ama suspiriyoka
leio-zulotikan,
Maria ta Dolores
koraje orratikan,
eskumuñak danairi
nere partetikan.*

*Konportatik asi ta
Beko-errota paria
baña luziago da
gure baporía;
gañera an dagoan
kurioidadia,
arrituko litzake
ikusi gabia.*

*Zer ikusi lezaken
mundu korrituak?
Oso ta bizi gaude,
gañera arrituak.
Dakar-en irten zaizkigu
larru-gorrituak,
trapu bana aurrian
beste gabekuak,
gu gera mundu onetan
zorionekuak.*

*Jaia zelebratutzen
dute arratsaldian,
lana egiten dute
eguardi artian;
gero pikardiyara
mezaren ordian,
orra Amerikako
kontuak zer dian.*

*Ikusitzen banaute
sartutzen elizan,
atzetikan burlaka
txoratu al naizan;
nik berdin korritzen det
lenagoko gisan,
baita segituko're,
ez bildurrik izan.*

*Aitatutzen badet nik
konfesionarika,
danak ibiltzen naute
ito bearrikan;
apaizak ez daukate
ortantxe lanikan,
gutxi ikusten ditut
joaten diranikan.*

*Oi t'amairu urte ontan
konfesatu gabiak,
Pellok ikusi ditu
atso ta aguriak.
Zer ikasiko dute
aien landariak?
Erremedi ditzala
guztizon Jabiak*

* * *

Hurrengo bertso hau ez dakit Ameriketatik norbaiti bidali ote zion edo nonbait ere kantatu zuen:

*Kartaz abisatuta
nabilte kotxian,
deskantsu aundirikan
ez daukat etxian;
ateratzen gerade
zerbaiten pozian,
iya aberastu nauk
premiyo utsian.*

GURE ANAIAREN EZKONTZA (1897)

Gure anaiak lehenengo emaztea hemeretzi urteko neska eder bat izan zuen. Aiarra zen, Olaetxekoa. Olaetxe hori San Pedroko ermita ondoan dago.

Harengana joateko, mendian gora igo, Bulano baserritik pasa eta mendiaren beste aldera jaitsi behar izaten zuen, ordu pare bat baino gehiagoko bidean.

Hango neskatxarrik ederrena eraman nahi zuelako edo, ingurumari hartako mutilek gure anaia begitan hartua zuten.

Gau batean, andregaia ikusi ondoren, hango tabernan karta-jokoan ari zen. Halako batean, hango mutilei keinuka ari zirela antzeman zien. Han gauza onik ez zegoela-eta, pixa egitera zihoala aitzakia eginda, tabernatik atera zen, eta kanpora orduko ekin zion mendian gora aldapari bere eginahal guztian.

Bazihoan eta, halako batean, bide-bazterrean norbait bazela iruditu zitzaion. Makila gora jotzeko posturan jaso, eta hola galdetu zuen:

–Nor da hemen?

Lehendabizikoan, han zenak ez zion kasurik egin. Berriro galdetu zuen:

–Nor da hemen?

Orduan hala aditu zuen:

–Kaixo, Miel Anton!

Bulano-etxeberriko gizona zen, bere lagunik handienetako bat.

Hala esan zion gure anaiak:

–Zertarako ez didazu lehendabizikoan kasurik egin? Eskapada ederra egin duzu! Ia galanta eman nizun!

–Pauso-hotsa aditu dut, norbait korrika zetorrela, eta badaezpada ere baztertu eta makurtu egin naiz. Bigarrengoan ezagutu dizut boza.

Gure aita Ameriketara joan zenean, bera handik etortzean ezkonduko zirelakoan utzi zituen.

Andregaiaren amak erregalu asko bidali zion aitari barkurako, eta horregatik bertso hau bidali zion gure aitak Ameriketatik:

*Eskumuñak, Ibarbia
Mikela Iñaxi,
zere esposuarekin,
fameli ta guzi;
etzidazun bialdu
erregalo gutxi,
oiek aitu baño len
Pello zan iritxi,
etorriko naiz eta
ez luze iritzi.*

Baina gure aita handik etorri zenean, anaia andregaiarengana joan eta oso triste bilatu zuen. Galdetu zion:

–Zer pasatzen da?

–Ni ezkonduko nintzateke, baina amak ez du nahi.

–Amak nahi ez badu ere, zuk nahi baduzu ezkonduko gara.

–Bai, baina zure aitak nahiko al du?

Hala partitu ziren. Gurea baino aberatsagoren bat bilatu nahiko zioten. Gure anaia triste bueltatu zen. Oso berandu, goizeko lauretan, sartu zen etxean.

Aitak hala galdetu zion ohetik:

–Zer berri dakark?

–Hau eta hau eta hau pasatzen da, eta ea berorrek nahiko duen.

Hori aditzean, gure aitak, *ras!*, ohetik saltatu, galtzak jan-tzi eta bideari ekin zion.

Ailegatu zenean, neskatxari hala esan zion:

–Atera zaitetz etxetik, ezkontzen uzten ez badizute.

Hala, ni ordurako ezkondua nintzen, eta nire etxera, Ondartzara, ekarri zuen. Eta ezkondu bitartean gurean eduki genuen.

Pregoa egin behar zen bezperan, Miel Anton, gure anaia, andregaia ikusten gurean izan zen. Ilundu eta gero etxera kamiotik zihoala, aiarrak bidera atera zitzaizkion Artzubiko bueltan.

Gure anaia astoaren gainean zihoan, eta haien kuadrilla ikusi zuen bezain laster, astoa utzi eta bide zaharrera korrika pasa zen.

Lekuko berri zekiena zen noski, eta botanako izkinatik pasa, leihoan gordeta zegoen giltza hartu eta etxera sartu zen.

Aiarrek astoaren bila etorriko zela uste zuten. Baina gure anaia leihoan zen, eta ilunpetan ezer ikusten ez bazuen ere, sumatzen zuen, astoa arrantzan hasten zenean, muturra txapelarekin-edo nola ixten zioten.

Egun-txintan, astoa utzi eta alde egin zuten aiarrek. Astoa orduan atarira etorri zen.

Gero jakin zuen gure anaiak haiek nor ziren. Ikusi baitzuten kuadrilla hura goizaldera pasatzen.

Geroztik eta ezkondu bitartean, beldurrak zebilen gure anaia. Pregoi-afarira joateko ere, auzoko mutila, Konportako Jose Mari, lagun hartu zuen. Baina bidean zihoazela, hark hala esan zion:

–Lehenngoan bezala ateratzen bazaizkigu, zer egin behar dugu?

Laguntza ustean hartu, eta hura ere kobardeatu!
Hala, Asteasun izan ziren ezteiak. Andregaiia gure etxetik ezkondu baitzen¹⁵.

Andregaiaren amak holaxe esan omen zuen:

–Nahiago nitek han ezkondata baino hilda ikustea!

Zazpigarren hilabetean, gure koinata horri anaia tifusarekin zuela abisatu zioten, eta bisitatzera joan zen.

Ez zuen ikusi. Atearen zirrikituetatik hala esan zion:

–Rupino, ondo al hago?

–Bai.

Aiako erretore jauna han zen eta hala esan zion:

–Tokirik txarrenean zaude. Aurrera edo atzera egin ezazu.

Ba, besterik gabe, handik kutsua hartu zuen. Tifusa harra-patu eta horretatik hil zen egun asko gabe¹⁶.

Aiako erretoreak bazekien nonbait haren ama zer esana zen, eta hala esan zion:

–Mikela Iñaxi, Asteasura joan eta ikusi alabaren hil-ohea zein tristea den.

Gure anaiari burutik egingo ote zitzaion beldur izan ginen. Beti kanposantuan zen, eta azkenean galarazi behar izan zioten.

Handik lau bat urtera, berriz ezkondu zen. Bigarren emaztea ere aiarra zuen, Maria Pilar Izeta, eta hamar seme-alaba izan zituzten.

GURE AMAREN HERIOTZA (1897)

Gure ama galbahean garia garbitzen aritzen zen, eta saihe-tsean bulto bat atera zitzaion. Errotako hautsarena omen zuen, eta hura bere bidea hezurretara egiten zihoan.

Ordua etorritz gero, orain ere orduan bezalaxe hil egiten dira; baina orain adelantu handiak daude, eta hainbeste modu ez zegoen orduan hura sendatzeko.

Hala ere, saihetsetik ebaki, hango zorneak atera eta urte-bete bizia luzatu zioten. Baina gero ere hark eraman zuen.

Gaixorik zegoela, Anastasi nire alaba bigarrena izan nuen. Jaiο baino lehen, haur hura berak jaso behar zuela esaten zuen, eta hala, bataiora astoaren gainean joan zen.

Orduan esaten zen Josafateko zelaian hemendik joaten zen bezala azaltzen zela. Horregatik, hildakoen gorputzak bedein-katutako erramuarekin eta ur bedeinkatuarekin garbitzen ziren aurrena. Hurrena, kamixa zuriz-eta azpitik gainera apain-apain janzten ziren. Gero gainean, abitua zuenak, abitua, eta ez zue-nak, zuen onena.

Orain, berriz, hila dagoen maindire hura bera, garbia bada, zikina bada, bi aldeetara bota eta oso-osorik kajan sartzen hasi dira. Orain hala hasi dira, errazkeriara. Ez nazatela ni behinik behin hola sartu!

–Ni apain-garbia izana naiz eta ni ondo jantzi behar nau-zue –esaten zigun gure amak.

Galtzerdiak eta botak eta soinekoak eta denak, zituen one-nak, ohe gainean edukitzen zituen, hiltzen zenean janzteko.

Eta egun guztian misio bat bezala kontseju onak ematen aritzen zitzaigun, umeak ondo hazteko eta hola. Baina misio bat bezalaxe!

Inguruko jendea ere joaten zitzaion, eta zeukan konformidadearekin denak harrituta edukitzen zituen.

Bezperan ere jendeari esaten aritu zitzaion nola sentitu zuen lehendik gaitza; mundu honetatik bazihoala, eta bere denboran zenbat gari-garbitze egin zituen, bere bizimodua zer izana zen, eta horrela. Ezagueraren faltarik ez zuen hark izan, ez.

Guri gutxiena aritzen zitzaigun. Tristatu egiten ginen, eta tristura ez emateagatik. Ni kanpoan nintzen, eta niri gutxiena esaten zidan.

Horrela, ezaguera onarekin, agorreko Santa Krutz egunean hil zen.

Gure aita oso triste gelditu zen. Txirritaren bertsoa ere bada:

*Pello, zertako zaude
triste eta umil?¹⁷*

Gero, norabait kanpora joanda, Txirritaren edo beste bi bertsolariren aurrean bertso hau bota zuen gure aitak:

*Gazterik egin gendun
alkarrekin junta,
ogei urte baño len
giñan ezkontuta¹⁸;
orain bakarrik nago
Jainkoak kenduta,
ai, zeruan balego
emazte dipunta!¹⁹*

HITZETIK HORTZERA

Bertsolaririk gehienek badituzte holakoak, eta gure aitak ere bai.

Don Braulio Arozena, Tolosako erretore izan baino lehen, Asteasukoa izan zen, eta hala galdetu zion gure aitari txarteletara joan zitzaion batean.

–Pello, zer nahi duzu galdetzea?

–Txartela eman eta azkar bidaltzea!

Eta azkarrena orduan bidali omen zuen.

* * *

Beste batean, elkarrekin topo eginda, honela esan zion don Brauliok, bizkarrean joz:

–Pello, urteak bizkarrean?

–Kargamentu txarra, jauna; nahita ere ezin utzi bazterrean.

* * *

Beste egun batean, txarteletara joan eta honela galdetu zion apaizak:

–Zer gauza da fedea?

–Sinestea ikusi gabea.

* * *

Bolada batean, Asteasuko medikuak bere kargua ondo konplitzen ez zuela eta apaizak kontra zituen.

Herrikoak ere, batzuk apaizen alde eta besteak medikua-
ren alde zeuden.

Eta azkenean bototara etorri zen auzi hori.

Hala, gure aita etxeko ate ondoan zegoen, eta apaiza etorri eta hala esan zion:

–Pello, horiek lanak! Horiek lanak!

Eta gure aitak:

–Berori delako *danak!*

* * *

Egun batean Tolosatik Villabonara trenean billeterik gabe zetorren.

Interbentoreak etorri eta honela esan zion:

–Billete!

Eta gure aitak:

–Galdu egin *zitzaio!*

Gero, izen-apelliduak esateko interbentoreak, eta gure aitak:

–Pedro Elizegi,
gaur ez nabilek errazegi!

Hurrena, non bizi ote zen galdetu zion, eta:

–Molino Konporta,
zuek ari zarete, baina niri gutxi inporta!

Interbentoreak ezer entenditzen ez, eta zer zioen galdezka. Jende dena, berriz, barrez. Saltsa horrekin Villabonaraino ailegatu ziren, eta han ez dakit barkatu edo zer egin zioten.

* * *

Behin batean atso xahar bat gure etxera eskean etorri zen, pañelu bat buruan zuela.

Gure aitak galdetu zion:

–Nongoa zara, amona? Nafarra?

Atsoak:

–Ez naiz munduan bakarra!

Eta gure aitak:

–Ez bizi leuna ere: lakarra!

Hurrena gureak galdetu zion:

–Elur handiak izango ziren han!

Eta atsoak:

–Elurra? Bai, jauna, bai! Lepo-lepo egin eta *quieto, coño!*

Goxoa izango zen atso hura!

SANTA AGEDA BEZPERAN

Errezildik eta, Aiatik eta, askotan deitzen zuten gure aita Santa Ageda bezperan koplari ibiltzeko.

Bost durokoa aginduta eramaten zuten. Asteasun ez zioten jornalik agintzen, eta herrian ez nuen behin ere horrela ikusi.

Ahopetik hala salatzen omen zioten:

–Etxe honetakoa nagusia Ameriketan izana da. Etxekoandreak izen hau du. Neskatzak nobioa halako du...

Eta gure aitak bakoitzari bertso edo kopla bana kantatu behar. Zenbat lagun etxean, hainbeste bota behar. Aurrena nagusia koplatu behar zen, hurrena etxekoandrea, gero seme-alabak. Gogoan dut neskatxa bati zer kantatu zion:

*Egunez ere ederra zera,
gaubian berriz apaiña,
beste guztiak utzi litezke
zu neretzako baziña.*

Hala esaten zigun:

–Lorentxa izeneko franko bazegon mendi horietan. *Laan-txa* esaten zieten.

Batek ogi osoa ematen zien, besteak lukainka, hurrengoak gazta, edo urdiazpikoa, edo dirua... Ahal zuenak ahal zuena. Arrautzekin zesto handi bat betetzen zuten.

Gero haiek denak ostatura eraman, manearazi eta banke-tea izaten zuten Santa Ageda egunean.

Kopla bat honela bota zuen:

*Sei lukainka ta zazpi urdai puska,
gañera berriz zeziña,
alkate jaunak agindu eta
Kaxildak egin kuziña.*


Mendiko baserrietan kalean baino gehiago biltzen zuten, eta azken baserrietaraino joaten ziren. Ordubeteko bidea bazen ere, hara joan behar izaten omen zuten. Errezilgo eta Aiako partean izugarri baserri bakanak daude, Altzola, Erdoizta eta Beama alderdi horretan. Basamortuan eta tokirik tristeenetan bizi dira.

Basarri jaio zen etxea ere hor nonbait dago; Granada-erreka deritzaio. Gure anaiak etxe hartan gaua behin egin zuen, eta goizean jaiki eta etxeakoak atari ondoko estratan makurtuta aurkitu omen zituen, elkarri hola esanez:

–Hara, hara... Hemen hanka-arrastoa zegok. Nor pasa ote da? Astoa! Bai, bai! Baita gizonezkoa ere! Oina handi samarra zian gainera... Ene! Bart pertsona pasa duk hemendik!

Beraz, gau guztia ibiltzen pasa behar. Lagunak sasoiko mutil gazteak ziren, baina gure aita gizarajoa leher egin eta petxutik izugarri nekatzen zen. Ez zen txorakeria. Urte batean oso aspertuta etorri zen.

–Ni ez naukate berriz hola ibilirik! –esan zuen, eta ez zen gehiago joan.



ar. do tan- to-ak
poz-tu - ta,

GURE AHIZPA DOLORES (1881-1901)

Gure ahizpa Dolores hogeï urterekin hil zen. Ama Birjina Doloretakoa egunekoa zen.

Huraxe genuen neskakoa ederra eta bikaina, ez lan gutxi egin zuelako baina.

Orduan etxean bera emakume bakarra zegoen, eta izotzarekin eta edozein eguraldi gaiztoarekin ere, errekarra joan eta lixiba jotzen aritzen zen. Zaku galantekin astoa kargatzen ere indarra hark zuen.

Mezetara goizero joan beharra izaten zuen. Don Tomas hura, berriz, urte guztian erremediorik gabe meza ilunpetan eman behar izaten zuen apaiza zen. Bolada hartan zakur amorratuen soinu handiak ziren, eta gure ahizpa hori asto gainean joan eta asto gainean etortzen zen.

Eta kantak ere bai, kantak ikasiko zituen ez dakit nondik ere. Hirurogeita zazpi bertsoko Jesukristoren Pasioko liburu txiki bat bazen²⁰, eta hitzik erratu gabe denak kantatzen zituen hark.

Gogoan edukitzen dut:

*Erresposta ondo emanda
Jesus alare utsegin,
soldadu batek jota bota zun
–mendean ez da atsegin–...*

Bertso horiek denak gure aitak ere bazekizkien. Don Brauliok, Ostegun Santu gauean, urtero biltzen zuen aiuntamentua erretore-etxean. Gure aita ere eramaten zuen. Han gure aitari bertso horiek denak kantarazten zizkion. Eta hala esaten omen zuen denen aurrean:

–Alferrik duk gu pulpitura igotzea. Jesusen Pasioa honek ederkiena kontatzen dik.

Errotarria pikatzen ari zela ere kantatzen zituen hark. Eta gure ahizpa hori ere noiznahi aritzen zen bertso horiek kantari. Boza ere aparta zuen.

Nik seme zaharrena izanda elizan sartu nintzenean ere, etxera abiatzean:

–Aizan, hator! –deitu zidan atzetik.

Joan nintzaion, eta:

–Mikela, umeak ondo hazi itzan. Umeak Jaungoikoaren beldurrean hazi itzan.

Ejenplua ematen niri hura, artean hemeretzi urteko neskatxa zelarik, hogezi ez zituen eta! Dena halakoa zen hura.

Beste neskatxa bat, Sagastumekoa, bere laguna, ikaragarri dantzari ederra, moja joana zen. Beste bat, berriz, Sagastikoa, Reparadorasetara joan zen Zarautza, muturra tapatutako horietara, eta hura ere den-dena gelditu gabe ibiltzen zen neskatxa zen. Eta biek ere han etsi.

Komentuetara joanda ere, horiek azkarrena etsitzen dutela uste dut, beti eskuak muturraren aurrean hola jarrita dabiltzanak baino hobeto.

Gure ahizpa, berriz, haien inbidiatan gelditu zen. Beti horixe zuen gogoan, eta aita Ameriketatik etorri zenean, guk esan genion:

–Hori moja joango da behinik behin.

Eta aitak esan zion:

–Jaungoikoa zerbitzatzen ez dinat galaraziko, baina begien bistatik betiko ezkutatzea ez niken nahiko.

Ez zeukan beste emakumerik ere orduan etxean: ama hil, gu ezkondu, eta semea ere ezkondu eta zazpi hilabete baino lehen andrea hila.

Halaxe, uda zen, eta gure ahizpa hori izerditu eta errota-pean sartu zen freskatzeko. Hartatik ez tul txarra jarri zitzaion, eta ez zitzaion joaten.

Apaizak kexatu zitzaizkion aitari:

–Pello, gu paseatzetik etxera eta zure alaba hori aurrean. Agudo joan nahi zuen eta ez tulak ez zion uzten. Zure alaba gaizki dago. Hogei urte ditu eta horren ez tulak ikaratzen gaitu.

Aitak esan zion medikuagana joan behar zuela, eta hark:

–Bai, ez tulagatik medikuagana joango gara.

Baina aitak hartu eta Tolosara eraman zuen, Arkauterengana. Hark esan zion katarro zaharra biriketean eta odolbildua bihotzaren gainean zeuzkala; bi gaitz zeuzkala neskatxak, eta esperantzarik ez zion eman.

Gero, Oiartzunen bazegoela mediku on bat, eta harengana bidali zuen, gure anaia Miel Antonekin.

Hark hala esan omen zuen:

–Gona zahar bat adabatuko litzateke, baina hau ez, neskatxa hau ez.

Eta hala etorri ziren.

Hurrena, berriz, Lazkaon bazegoela barberoren bat, eta han ere izan zuen. Santa Marina bezpera zen. Anaiak astoaren gainean eraman zuen estazioraino, gero trenean, eta berriro ere astoan.

Baina han ere desengainua.

–Hankak handitzen hastean, azkar ibili neskatxa honekin
–esan omen zion anaiari.

Anaia negarrez hasi omen zen, eta arrebak antzemango ziolako beldurrez, ez omen zen arrebagana berehala azaldu. Puxka batean astoarekin ukuiluan-edo egon zen.

Azaldu zenean, ordea, azkar konturatu zen arreba anaiak begiak handituta zeuzkala, baina ez zion ezer esan. Ez zen tonta, ez.

Erremediorik ez zuela etsi zuen gizarajoak, eta gogoratzen zitzaionean, batzuetan konforme eta batzuetan triste jartzen zen.

Egun batean, anaiak leihotik baratzera begira eta negarrez aurkitu zuen. Hala galdetu zion:

–Zer dun, Dolorex?

Eta hark:

–Ez diat ezer ere, baina pentsatzen nagok aurki lur horren azpira joan beharra nagoela hemeretzi urterekin...

Eta hiltzeko aurrean, holako lekutan bost xentimo bazuela zor, halako lekutan bazuela apreta pare bat ekarri eta irina eramana, eta testamentua egin zuen ederki hark. Oraingo neskatxek malezia gehiago daukate, bai.

Hil zen bezperan, denak jakin nahi zituen nonbait eta anaiari holaxe galdetu zion:

–Aizak, Miel Anton, hiltzera noak eta Lazkaokoak zer esan zian esan behar didak.

–Zer esan zidan? Hiregana etorri nahi ezik egon nindunan orduan.

–Antzeman nian nik, bai, nahiko negar eginda nire aurrera etorri hintzela.

Eta halaxe, denak esan zizkion.

Hurrena, berriz, aitari esan zion:

–Aita, oraintxe begien bistatik betiko ezkutatzera noa.

Harrezkero, beti pena handia edukitzen zuen gure aitak.

Hala behar nonbait, eta gizon bat, Ixkurbaneko Joxe Iñazio, etorri zen:

–Ikusi behar dugu ba –esan zuen.

Sartu eta:

–Ni ezagutzen al nauzu, Dolores?

Eta hark:

–Jesus! Ezagutuko ez dut ba?
Hari hura esan eta hola jira omen zen, eta akabo. Gehiago
hitzik egin gabe, hartan gelditu zen²¹.

GAIXORIK

Azkeneko halako dar-dar-dar bat jarri zitzaion gure aitari. Eskuak beti dar-dar, ezin gelditurik.

Maldizioa zuela esaten zuen.

Bazen Larraulen Arpide esaten zioten gizon bat. Ezagutu nuen nik hura. Gizon bikaina zen. Espainian zen abarkadunik aberatsena juzgatzen zuten. Buruan sonbreiurekin ibiltzen zen.

Larraulgo alkatea izan zen, eta antzara-jokoa hark jarri zuen hango festetan, San Bartolome bigarren batean. Nik sei bat urte nituen orduan, eta amarekin joan nintzen ikustera.

Antzarak plazan buruz behera eta hankaz gora jartzen zituzten, sokatik zintzilik. Zaldi gainean eginahal guztian zihoazela, heldu eta lepoa burrundaran kendu behar zioten. Esku batekin abereari eutsi eta bestearekin antzarari heltzen zioten.

Baina *Zomorro* izengoitia zuen mutilzahar batek, gure aita-ren lehengusu propioak, bi eskuekin heldu zion, eta zaldiak ihes egin eta han gelditu zen antzaratik zintzilik. Haiek barreak egin zituen jendeak!

Oiartzunen beste behin ikusi nuen antzara-jokoa. Hemen arinago zihoazen zaldiak, Larraulgo estrata bazterrean ezin baitzuten abiada handirik hartu.

Arpidek bi seme eta alaba omen zituen. Alaba neska ederra eta galanta zen. Egun batean Donostiara etorri zen neska-mearekin. Alabak beste zer edo zer izango zuen, eta neska-me, berriz, kapoiak saltzera. Eta biak batera plazan zeudela, gizaseme bat etorri eta kapoiak erosi zituen. Gero hala esan zion alabari:

–Egin dugu kapoien tratua, eta orain zurea egin behar dugu, neskatxa.

Hala, ezkontzeko konformatu ziren. Baina Arpidek ez zuen nahi. Depositatu omen zuen alaba, edadea izan artean. Baina gero ere harekin ezkondu zen.

Arpide horren emazteak zazpi baserri eta lakari bat urre izan omen zuen ezkontzeko dotea. Baina senarrak, erremedio gabe, beti auzitan ibili beharra izaten zuen, eta denak galazazi zizkion. Aurretik dena preparatu eta, huskeria bat balitz bezala, papera firmarazi zion, Larrauldik kanpora zihoazela, Larrañaga baserriaren azpiko aldean.

Arpide gaiztoa zen. Federik bazuen ere ez dakit. Apaiz eta erlijioso guztiei "Jainkoaren zerriak" deitzen zien.

Bazen beste gizon bat Atxaga esaten ziotena. Pobrea omen zen. Atxaga horren aita arto puska bat beretzat ganaduaren buruetan hartu eta janari harekin ibiltzen zen itzaintzan.

Eta Atxaga horren semeak bide gaiztoz azienda dena jan omen zion Arpideri. Hala esaten zen. "Holako garaitarako horrenbeste mila duro" esan omen zion Arpidek, eta bai joan ere. Baina atepak eta leihoak, denak itxi zizkion Atxagak, sar ez zedin. Arpidek, leihoren bat bilatuta, handik paperak sartu eta dena egin zion, baina hala ere azienda guzti-guztia bereganatu zuen Atxagak. Guk azienda hori dena Atxagarena eza-gutu genuen, baina Arpiderena omen zen garai batean.

Neronek ezagutu nuen Arpide hori Konportako andreari, Xalbadorrari, pezeta baten eskea egiten. Lehenago, aberatsa zelarik, ongietorriak eta sekulako omenajeak egiten zizkioten Konportan, baina gero, pobretu zenean eta pezeta eske hasi zenean, atepak ixten zizkioten. Hau mundua!

Gero Larrauldik alde egin zuen ez dakit nora.

Atxagaren aitari, arto puska ganaduaren buruetan ibiltzen zuenari, halako dar-dar-dar bat jarri zitzaion, eskuak beti dar-dar ezin gelditurik. Gure aita halakoa zen, eta hala esan zuen egun batean:

–Hau ere ari duk ba, dena beretzat eta dena beretzat...
Atxagak aditu zion ordea, eta izugarri haserretu eta honela esan zion:

–A, Pello, akordatuko haiz! Ikusiko duk! Ikusiko duk!
Gero, denborarekin, gure aitari Atxagak izan zuen dar-dar hura bera jarri zitzaion.

Gogoratu zitzaion, eta askotan hala esaten zuen:

–Nik Atxagari hura esan nion, eta haren maldizioa izango dut.

Eta dar-dar horrekin bastante denboran egon zen, urtebete pasea bai, gehiago ez bada ere.

Hura ez zen horrela ohitua, eta ezinean jarri zenean, bere burua berak tristatu zuen, eta horrela gehiago gaizkitu zen.

Lehenago, noranahi ibiltzen zela, animosoa zen. Baina gauza ez zela jarri zenean, animoa galdu zuen.

Baina eserita gisa horretan zegoela ere, ez zuen bertsoarako etorriaren faltarik.

JENDEAREN AURREKO AZKEN BERTSOA

Asteasuko eliza berritu zuten, eta hura berriz ireki zenean festa handia egin zen.

Gure aita ordurako xahar-xaharra zegoen, eta bere oinez bai, baina bestek besotik lagun eginez joan zen elizara.

Bertsotan asko aritu zen arratsaldean, elizaren kontu guztiak kantatu zituen. Txalo franko ere jo zioten.

Baina gero, eliz atarian, gazte horiek –hainbeste gazte estudiante zen kantatzera etorria– atzeneko bertso bat botatzeko eskatu zioten.

Eta gure aitak bertso hau kantatu zien:

*Au esango dizuet
azken-azkenian,
zer egin bear dezuen
iltzen naizenian:
errosaio bat esan
nere izenian,
zerura joan dedin
Pello zuzenian.*

Bere denboran hainbeste arrosario errezatua zen, bidean irinarekin zihoala, eta arrosarioa nahi zuen hiltzen zenerako ere.

Geroztik etxean kantatu zuen; baina, nik gogoan dudala, kanpoan ez zen izan, eta jendearen aurrean atzeneko bertsoa hori kantatuko zuen²².

HERNIORA ZIHOAZENEI

Plazan kantatutako azkeneko bertsoa horixe izan zen; baina, nik gogoan dudana, geroztik ere bota zuen beste bertso bat gure etxeko atarian.

Hernioko erromeria zen, eta jendea bidea betean zihoan. Usurbildik eta, Oiartzundik eta, oso urrutitik etortzen zen garai hartan jendea, San Joan Txiki bezpera gaua oinez bidean pasata.

Errotak, ondra izango badu, soinua behar du, eta gure aitak bi trangarekin ibilarazten zuen egun horretan. Urte hartan ere hala zuen.

Ni neure umeekin errotara joana nintzen. Gure aita mandioko atearen kontra zutik zegoen, jendeari begira. Eta jendea, erromeriara bezala, soinu joz eta deiadarka, bulla ederrarekin zihoan.

Askok ikusi eta "Euuup! Pello, zer modu? *Ariyo*, Pello Errota!" eta hola hots egiten zioten.

Baina batzuek hola esan zioten:

–Urrutikoak bagoaz gurutzera, eta bertakoak ez? Hemengo jendeak federik ba al du?

Ni aitarekin nengoen, eta hola esan nuen neure artean:

–Gure aitak bertsoa botako ote du?

Eta bota zien ba. Banekien nik bertso hura oso-osorik, baina orain hasiera ezin gogoratu zait:

.....

.....

*nere esplikaziyua
dizutet emango;
beti izan izandu naiz
fediaren bando,
Pello Errota Erniyora
geio ez da joango.*

Nik hori aditu, alegia gure aita Herniora ez zela gehiago joango, eta a zer negarrak egin nituen!

Aitak niri begira jarri eta hala esan zidan:

–Zeri negar egiten dion?

–Berori Herniora gehiago joango ez delako.

–Hi ere geldituko haiz joan ezinik, bai.

Ez nintzen ordea berehala gelditu! Laurogeita bi urterekin igo nintzen ni Herniora. Bidean aurrera joanda, besteak etorri bitartean errezatzen gelditzen nintzen.

Hernion halako lata zahar bat zegoen. Hura korreoa omen zen, alegia nahi zuenak izena eskribitu eta han txartela sartzeko. Nik ere hala egin nuen: *“Micaela Elicegui, 82 años y pico...”* eskribitu eta han bota nuen. Gurutzearen atzean ere eskribitu nuen.

Herniotik jaitsi eta Iturriotzen meriendatu genuen, eta gero Asteasura. Hurrengo goizean, sei eta erdietako meza entzun eta Donostiara etorri nintzen tratuarekin.

Bai, airoso joan nintzen ni Herniora. Baina orain non gara? A, Jaungoikoa!

Gure aitak, berriz, zahar planta artean hirurogeita hamaazpi bat urte besterik ez zituela hartu zuen.

HERIOTZA

Esan bezala, urtebeteren bat egingo zuen gure aitak gaixorik.

Frai Daniel Baertel ere, Asteasun misioak eman zituen fraidea, etorri zitzaion arratsalde batean bisitaz. Konfesatu ere harekin egin zen.

Makina bat kontu aipatu zuten, bere bizitza nolakoa izan zen eta hola.

Frai Danielek hala esan zion:

–Bai, mundu honetan ogia batzuek batera jan behar izaten dute, eta besteek bestera; bizimodua batzuek batera izaten dute, eta besteek bestera; eta zuk ere zurea izan duzu.

Hala, Ama Birjina Kandelariokoaren eguna etorri zen.

Hura, zebilen toki guztian, edo bertso kantari edo txapela eskuan zuela errezatzen ibiltzen zen. Makina bat bider esan izan dute aiarrek Pello Errota, karroa eta idi bakarrarekin zihoala, esku batean akuilua eta bestean txapela hartuta, arrosarioa esaten joaten zela. Errotarria pikatzen ari zela ere hola aritzen zen. Eta gauza ez zela gelditu zenean, gehiago errezatzen zuen.

Beti Ama Birjinari eskatzen eta, atzeneko, Ama Birjina Kandelariokoak eraman zuen.

Ni bezperan ere tratuarekin joana nintzen, eta ez nuen uste gaizkiago egongo zenik.

Goizaldera joan nintzaion, eta hala galdetu nion:

–Zer moduz dago, aita?

–Hitza moteltzen ari zait eta burua ere lotzen.

–Bai, mingaina eta burua gehien nekatuak dauzka berorek bere denboran, eta haiek aurrena ahulduko zaizkio.

–Bai. Halaxe dun, bai.

Gero handik tratuarekin Tolosara joan nintzen.

Bueltakoan, nire lehengusu Zizurkilgo Juanarekin eta beste lagun batzuekin topo egin nuen. Honela galdetu nien:

–Non izan zarete?

–Zure etxean bisitan izan gara.

–Gure etxean bisitan? Zer ba?

–Zure aitari elizakoak eman dizkiotela abisatu digute, eta bisitan izan gara.

Agudo joan nintzen ni etxera! Holakorik izango zenik ezta pentsatu ere!

Ailegatu nintzenerako, ezagutu egiten ninduen, baina hitzik ez zuen egiten. Minik zuenik ezin esan zuen gixaxoak, baina antsia maiz egiten zuen.

Horrela egun guztia pasa zuen. Don Lorentzo erretorea han zuen hiltzen laguntzeko.

Eta gauean goizaldera hil zen²³.

Pello Errotak jarritako bertsoak
bere alabaren argibideekin

ELIZONDORA (1879)

Elizondora bertsozara joateko abisatu zioten. Jose Bernardo Otaño eta biak ziren. Santa Ana egunarekin joan ziren²⁴.

Garai hartan Villabonan ez zen estaziorik izango, eta Andoainen hartu zuten tren.

Izugarri ondo tratatu omen zuten, eta hango buelta eginda, kankak inprentatu eta bidali zizkien.

Ni orduan txikia nintzen, eta ahizpak eskribituak izango ziren horiek denak.

Hasiz gero denak esaten nituen, baina orain ahaztu samartu zaizkit. Osorik edo puska falta dutela, gogoan ditudanak esango ditut:

*Santa Ana egunian
jun giñan emendik,
amarretako trenan
martxa Andoaindik;
gero Elizondora
kotxian Irundik,
ardit bat bakarrikan
eman gabetandik.
Alako gizonik
iñun bizi zanik
ez nuben uste nik;
ain prestu ta onik
gureztat ez da izan
iñun oraindik.*

*Lekarozko seme bat,
bera Martin Plaza,
zierto badakit nik
eztala eskasa.
Pruebetan eman nion
formalaren traza,
aren bitartez gera
Elizondora pasa.
Izan degu gauza
izugarri lasa;
ark daukan frankeza
neurtzen ezta erreza;
berriz ere nai badu
abisa beza.*

*Plazan, geunden bezela,
gu erretratatu;
dirurik ez artu,
gañera kontentu,
grazi partikularra
orrek berak-tu.*

*Beste juzkalari bat
zan sazerdotia,
gure iritzirako
korrientia;
gorputza ere zuban
oso dezentia,
buruko talentuba
supizientia.
Eman du kortia,
nork daukan artia;
ark borondatia
guri ematia;
ala izan zan gure
errematia.*

*Don Santiago Almandoz
bazan juzkalari,
erreparatutzeko
gure lanari:
bertsolariak nola
ote giñan ari;
ark kanpotarrari
mesede ugari
egin digu guri;
berdin merezi du ta
ondo izan bedi.*

*Larogeina duro fuerte
eman dizkigute,
aitortu gentzake
bizi geran arte,
justizia onraduak
ondo bizi bite.*

*“Fuente Hermosa” zeritzan
iturri batera,
ez giñaden juanak
ura edatera.*

“NIRE GURASO ZAHARRAK”

Bertso honek gure aitak gaztetan botea izan behar du.

Gertaera zer izango zen? Gure aita norabait joan eta hango gizonak esan ziola:

–Bai, alaba bazeukaagu eta moja bidali nahi genikek, baina hark, berriz, ezkondu egin behar omen dik.

Eta gure aitak orduan:

*Nere guraso zarrak,
au entzun kontuan:
gogo gabeko gauzak
zer lanak dituan.
Sartu izan balitz au
moja komentuan,
au edukiko zuan
ark pentsamentuan,
ia zenbat pekatu
egingo zituan.*

APUSTUA

Gure aitak apustua egin zuen behin batean Zizurkilgo Unen-tsoroko gizon zaharrarekin. *Akerra* esaten zioten gizon hari.

Honenbeste anega gari, *Akerra* horrek ganaduarekin atzeraka eta gure aitak astoarekin, halako tokira zeinek lehenago eraman. Hori zen apustua.

Nahi bazuen berak ere bizkarrean eraman, gure aitak libre zuen. Berak eta astoak, bien artean eraman behar zuten.

Ondo gogoan izaten dut: Loma izena zuen astoak.

Ez dakit zenbat diru zuten, ez dakit horixe, baina ez zuten asko izango.

Zizurkilgo kamioa egitean kendu zuten hura ere, baina lehenago han aldapa zen, eta han egin zuten apustua. Bika-txezarko aldapa esaten zitzaion.

Bizkorrak omen zituen *Akerrak* atzeraka ere ganaduak, baina gureak irabazi zuen.

Apustuan ari zirela, *tak!*, zakua lehertu, gari pixka bat lurrera erori eta bi mokadu egin zituen astoak.

Eta kontrarioak auzi eman zion:

–Ahoan sartua falta du –esaten omen zuen.

Baina gizon juzgalariek esan omen zuten:

–Bai, baina barreanean pasa dik horrek lurretik hartu duena.

Noski! Tripan pasa baitzuen. Arraian pasa zuela behinik behin, eta juzgalariek gurearen alde erabaki zuten.

Juzgalari bat artzaina zen.

Nik ez dakit batere zenbat bertso izango ziren. Apustu hori guk gogoan ez dugula izan zen, eta bertsoak ondorenean aditu egiten genituen. Toki horietan makina bat bider astoa-

rekin ibilia naiz geroztik. Bi bertso hauek besterik ez dauzkat gogoan:

*Zaku lertutik astoak egin
zizkiraden bi mokaru,
nere artian pentsatu nuen:
"Pesta ederra zeukagu".
Kontrariyuak esaten ziran:
"Orrek sartua palta du".
Gizonak berriz juzkatu zuten:
"Jana arraian pasa du".*

.....
.....
.....
.....

*juzkalariya artzaia zan da
botillerua etxetik,
a zer traguak egin zituan
Akerra-k txarro motzetik!*

LAURKINEN

Urte batean Laurkineko festetara gure aita eta Zizurkilgo Juan Jose Ugarte deitu zituzten bertsoarako²⁵.

Gaztandizabalko Iñaziok abisatuta joan ziren. Baina jorna-
larekin ez zitzairen ondo portatu.

Etxera etorri eta bertsoak jarri zizkion gure aitak. Denak ez,
baina batzuk behintzat badakizkit nik buruz:

*Illaren oi ta bederatzian
San Migel zan agorrian,
bi bertsolari izandu giñan
Laurkiñ deritzan ballian.
Kantariyena jakiña dago:
jornal artzeko idian;
diruan kargak ez gaitu asko
nekatu etxera bidian.*

.....
.....
.....
.....

*allegatzian esan ziguten
komeni zana artzeko,
famili txarra daukat etxian
mantendu-truke egoteko.*

*Iñazio orren komixiyoz gu
joan giñaden Laurkiña,
Gaztaindizabalkoa omen da bera,
jendia dago jakiña;
oraindikan e damutan nago
orrek burla ori egiña,
gurekin beintzat ez da portatu
entero gizon bikaiña.*

.....
.....
.....
.....

Iñazio ere motel ustian
entero gizon azkarra,
aren partez bai Argiberri ta
Manterolako maiztarra.

Iñazio horrek festetarako zezen zahar bat hila omen zuen,
eta gehien-gehiena jan zuena bera izan omen zen. Hori ere
esaten zion bertsoetan:

.....
.....
.....
.....

*egun oietan tragatua da
zezena-puska ederrik,
arru erdi bat irabazi du,
okelak badu indarrik.*

Iñazio hori oso itsusia omen zen, eta Donostian arkume saltzen zegoen batean, erretratatu egin omen zuten. Horregatik, horra nola zioen azkeneko bertsoan:

.....

.....

.....

.....

*erretratatu egin ziñuten
Donostiako atsuak,
danak merezi dituzulako
Pello Errotak bertsuak.*

URNIETAKO ALKATEARI

Urnietara sanmigeletan festetara joan eta hango plazan bertsoen hasiera gure aitak eman behar izan zuen.

Alkatea ezkonberria zen, Zegamakoa zuen andrea, eta alkatea ondratzen hasi beharko zuela eta honela hasi zen:

*Alkate jauna nai nuke
ondratzen astia,
ondo bizi da eta
eztago tristia.
Zegamatik ekarri
zuan emaztia,
ederra ta aberatsa,
gañera gaztia.*

Haiek txaloak jo zizkieten! Laurogeita lau urte izango dira hau bota zuela.

JOSE JOAKIN KORTA

Jose Joakin Korta seme bakarra eta pobrea omen zen, eta bertsolaria gainera. Ama alarguna hemen bakarrik utzi eta Ameriketara joan zen.

Ama jostuna zuen, Manuela Iñaxi, eta eguneko bi errealean etxez etxe josten ibiltzen zen. Nik ezagutu nuen.

Semearen notiziarik ez zuen eta triste zegoen. Gure ahizpa ere han zen, eta gure aitak bertsoak bidali zizkion ama horren bitzta zer zen adieraziz, eta Jose Joakin Korta hori ikusten bazuen hari emateko esanez.

Gero, Korta horrek erantzuna bidali zion gure aitari. Hemendik zihoan baporeari ez omen zioten Amerikan berehala sartzen utzi, geldituta eduki omen zuten Buenos Airesko portuan, gaitzik bazihoakion ala ez. Gisa horretan berrogei egunean egoten zirelako, *cuarentena* esaten zitzaion horri, eta honela esaten zuten gero:

–Koarentenan egon gaituk.

Gure aitak bertso hauek bidali zizkion:

*Ikusitzen badezu
Jose Joakin Korta,
bizi dala esaiozu
aita Pello Errota.
Kasoik ez eiteko nik
zertan detan kulpa?
Nere erretratua
nunbait e or du ta,
ia kentzen diozun
zuk ezagututa.*

*Bertso bakar batzuek,
Jose Joakin, zuri,
ipiñitzen dijoa
Pello Errotari.
Zure notiziarik
etzaigu ageri,
nitzaz aztu zerala
trazak badiruri.*

*Aparte zaudelako
nik dedan damua!
Zergatikan ziñaden
zu lagun sanua.
Ikusi ordurako
amerikanua,
zure galde egitera
de repente nua.*

*Ama Manuela Iñaxi
dago alarguna,
seme bakarra izan da
ura emendik juna.
Biotzez eskatzen du:
"atoz neregana",
zartzerako sikiera
nai luke laguna.*

*Jostunen enpliuak
oso dira galdu,
zergatikan makinak
diraden ugaldtu.
Biziko danak beti
zerbait e biar du,
ama kontsolatzeko
dirua bialdu.*

*Beste lagun bat badet
or Anastasiyo,
neri abisatzeko
dago despaziyo;
alkarrekin pasiak
amaika funtziyo,
ni naizela guztiya
aztu ezpazayo,
karta bat egiteko
esan bear zayo.*

Eta Jose Joakin Korta horrek honela erantzun zion:

*Galleta gogorra ta
aragia jaki,
kuarentenako berri
probatuak daki;
seireun pasajero
ez giñan urruti,
buruko miñ bat ere ez
danetatik bati,
premiyan laguntzen du
Jaungoikoak beti.*

BESTE BERTSO BATZUK

Juan Jose Ugarte Zizurkilgo bertsolari bat zen. Oso ona zela esaten dute. Gure aita harekin joan zen behin batean Laurkina bertso kantatzera.

Egun batean, kantuan ari zirela, bertso hau bota zion gure aitak:

*Juan Jose Ugarteko
gizon aditua,
nik ez dizut galdu nai
dezun kreditua;
gauza onak beti badik
bere meritua,
ni geiago izana
ezin sufritua.*

* * *

Hainbeste bider aritzen ziren, eta nonbait ere bertsotan ari ziren egun batean Txirrita eta beste bat, mutilzaharrak, eta Olegario eta gurea, alargunak.

Norbaitek bertsoa aurretik botea izango zuen, eta gureak bertso hau bota zuen:

*Oraintxen azkar esango ditut
zuriak eta neriak,
geren esposak kendu zizkigun
aundiagoko Jabiak;
nik ez dakit zer pentsatzen duen
beste mutil zar pariak,
lau bertsolari ementxe gaude,
laurok andrerik gabiak.*

* * *

Lehen esan dugun bezala, garai hartan Asteasun sagardotegi asko zen; plazan bi ziren.

Behin batean, gure aita sagardotegira joan eta, han beste lagunen batzuk ere edukiko zituen, edaten gogotik ari zirenak, eta haiei bertso hau bota zien:

*Sei baso atera ta
sei tragotan usttu,
beste sei erateko
iñor biar eztu;
eran korriente baño
pagatzia aztu,
ola tabernaria
nola aberastu?²⁶*

* * *

Patxi Errerua Aiakoa zen. Gizarajo handi bat zen. Mozkor samarra ere bai, eta orduan ere hala omen zegoen.

Bertsoa botatzeko esan omen zion gure aitari, eta hauxe bota zion:



*Zelebria zerade
Patxi Errerua,
ardua erateko
badezu gogua;
orrek ematen dizu
naiko endrerua,
jeniyo orri utzi
ezpazera erua.*

* * *

Egun batean Aiara irinak eramatera joan zen, eta bueltan gurdian lasai-lasai jarrita zetorren.

Gaua zen eta gure aitak argirik ez.

Halako batean, mikeleteek "Alto!" hots egin zioten. Eta gure aita ezagutu zutenean, hala esan zioten:

–Pello, gurdian?

–Lau zakuren erdian!

–Non duk argia?

–Hara hor ilargia!

Ez dakit ordukoa zen edo gerokoa zen, baina ordukoa izango zen. Nonbait eskatu zioten multa, baina bertsoa botatzeko esan omen zion batek, horrekin barkatuko ziotela.

Baietz ba, botako zuela, gure aitak. Eta honela bota zuen:

*Biria luzia ta
ankik ezin jaso,
nere buru zuri (y) au
zoratu dek oso.
Batere uste gabe
artu naube preso,
agur, gizon prestuak,
eskerrikan asko.*

Eta holaxe, barkatu egin omen zioten.

Oharrak

- ¹ Juana Manuela, 1839-2-8an jaioa; Pedro Jose, 1840-12-23an; Teresa Sabina, 1842-10-27an; Josefa Luisa, 1844-12-19an; Maria Antonia, 1846-12-20an; Jose Agustin, 1848-2-9an; Juan Krutz, 1851-1-27an. (Asteasuko eliz liburuak).

Pedro Jose Elizegi: *“El día 23 de Diciembre de 1840 a la una de la mañana nació y dicho día fué bautizado por mí, el infrascrito Rector de la Parroquia de la Villa de Asteasu, Pedro José, hijo legítimo de José Santiago de Elicequi, natural de Larraul, y Josefa Ramona de Maiz, natural de Soravilla: Abuelos paternos Gabriel de Elicequi y María Josefa de Aguinalde, naturales de Larraul; Abuelos maternos Pedro de Maiz, natural de Arbizu en Navarra, y Teresa Antonia de Urrestarazu, natural de Ataun: Siendo padrinos el abuelo materno y la abuela materna, a quienes advertí el parentesco espiritual y demás obligaciones. Y para que conste firmé: Manuel de Usabiaga”.* (Asteasuko parrokia, laugarren bataio-liburua, 177. orria). Antonio Zavalaren oharra, ondoren datozen guztiak bezala.

- ² Zortzi anai-arrebak, jaiotze-dataren hurrenkeran: Joxepakiña (Josefa Joakina), 1862ko maiatzaren 15ean jaioa eta 1866ko martxoaren 28an hila, *garrotillo* deritzea gaitzarekin; Joxepa Iñaxi, 1864ko ilbeltzaren 12an jaioa; Juan Tomas, 1867ko martxoaren 7an jaioa eta 1868ko maiatzaren 20an hamalau hilabeterekin hila, *congestión cerebral* gaitzarekin; Mikela, 1869ko abuztuaren 19an jaioa; Miel Anton, 1872ko martxoaren 28an jaioa eta bere jaiotetxean bertan 1936ko otsailaren 12an hila; Juan Krutz, 1875eko ilbeltzaren 30ean jaioa eta 1876ko agorraren 2an hila, *gastritis* gaitzarekin; Maria, 1877ko urriaren 25ean jaioa eta 1963ko otsailean hila; Dolores, 1881eko apirilaren 8an jaioa eta 1901eko agorraren 16an hogeitertekin hila, *tuberculosis pulmonar* gaitzarekin. (Asteasuko eliz liburuak).

- ³ Garai horretarako biak ere botreak, fabrikaren bat edo egiteko.

- ⁴ Juana Antonia Bengoetxea, Juan Tomas eta Juana Josefaren alaba, 1876ko abuztuaren 4an hil zen, lau urte eta hamaika hilabeterekin, *“a resultas de haberle mordido un perro”*. (Zizurkilgo elizako bigarren heriotza-liburua, 148. orria).

- ⁵ San Migel bezperan ez, baina abuztuaren azken igandean izaten da.

- ⁶ Absoluzio eguna zer zen hobeto jabe gaitzen, on izango da 1980ko azararen 14an Iruñeko *Diario de Navarra* egunkarian eta “Absoluzio” izenburuarekin agertu zen idazlanaren zati bat hona aldatzea.

Artxueta’ko Unaiak izenpetzen du; aspalditik San Migeleko kapilaua den Inozentzio Aierbe apaiz jaunak alegia. Honela dio:

“Aralargo San Migelgo elizan egin ohi diren urtean behingo jaietan handienetakoa, handiena ez bada, Absoluzio izenarekin ezagutzen duguna da.

Abuztuaren azkeneko igandean egiten da, eta eliza honen sagaratze eguna gogorarazi nahi digu. Garai batean eliza bat sagaratzea gorabehera edo garrantzi handiko gauza zenez gero, sagaratze edo kontsagratze hori zela eta, ontasun, opari eta opide asko hartzen zituen, bai elizgizon nagusiengandik, bai batez ere errege eta handikiengandik. Gure elizak ere, egun hori zela eta, besteak beste, arimeñ buruz hartu zuen eskubiderik gailenena hauxe izan zen: egun horretan konfesatzera etortzen zirenek beren bekatu guztien barkamena iritsi ahal izatea, baita Gotzainari ala Aita Santuari berari bereziki egotzirik zeudenak ere, erdaraz *pecados reservados* esaten zaienak.

Lehengo garai haietan bekatu berezi edo *reservado* asko baitzen, berezko zen "Absoluzio" egunean eliza honetara jendea erruz etortzea, beren bekatuak aitortuz eta absuluzioaren bitartez lasaitasun eta bake bila [...].

Noiztikoa ote dugu "Absoluzio" jai hau? San Migelgo elizaren hasierari dagokion xehetasun guztiak bezala, hau ere ilunpean dagokigu. Hala ere esan dezakegu oso aspaldikoa dela, agian XI. mendekoa".

⁷ Adunako zubia.

⁸ Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jaunak orain hogeita hamar bat urte –1933an edo– Asteasun jaso zuenez, Jose Bernardo Otañok kantatu zion aurretik, eta honela esan omen zion atzeneko puntuak:

*Pello Errota, aspaldi ontan
zer moduz bizitzen zera?*

⁹ Beste bertso batek honela zituen azkeneko puntuak:

*guardianoak ere
etziran aparte,
Zizurkilko lurrian
arrobotu naute.*

¹⁰ 1963an, liburu hau argitaratu zen garaian, ez Altxiturrin eta ez Saluaten ez zen ordukoen ondorengorik bizi.

¹¹ Pello Errotak beharbada bertso hori kantatuko zien tratulariei, baina Xenpelarena da berez.

¹² Mikela ezin oroitu zen hemen nor aipatzen zen.

¹³ Erreterriako Juan Zabaleta bertsolariaren alargunak esaten zuenez, bertso hau Xenpelarrek bere alabari esan eta honek eskailburutik kantatu zuen:

*Bertsotan ari dira
bi galtza-jariyo:
bat da astiarra ta
bestea Xanbuyo;
gizonaren gradura
nai luteke iyo,
nere aitarentzako
ez dute baliyo.*

Oiartzunen, Pello Errotaren anai-arreben ondorengoek ere Asteasun kantatua dela esaten dute, baina Mikelak berak kantatua. Beraz, honek bere ahizpak kantatua dela badio, ez dago zer dudarik egin honela izango dela. Oiartzunen era honetara ematen dute:

*Bertsotan ari dira
bi galtza-jariyo,
.....
.....
kantuan nai luteke
oiek gora iyo,
aita guriarentzat
ez dute baliyo.*

- ¹⁴ Gaitz-ta: gaitz da.
- ¹⁵ 1897ko otsailaren 21ean ezkondu ziren. Beren izenak: Miel Antonio Elizegi Bengoetxea, errotaria, asteasuarra, hogeita lau urtekoa, eta Basilisa de Aldabaldetrekua Ibarbia, nekazaria, aiarra, hemeretzi urtekoa. Andregaiaren gurasoak: Juan Inazio, aiarra, eta Mikaela Inazia, zizurkildarra. (Asteasuko elizako 4. ezkontza-liburua, 4. orria).
- ¹⁶ 1897ko irailaren 20an hil zen, hemeretzi urterekin, Goikoerrotan, *fiebre tifoidea* gaitzarekin. (Asteasuko eliz liburuak).
- ¹⁷ Ikus Auspoa 18-19, 111. orria.
- ¹⁸ *“Día veinte y cuatro de Julio de mil ochocientos sesenta, habiéndose publicado en la Iglesia Parroquial de Asteasu, y en esta mi Parroquia, las tres proclamas que dispone el Santo Concilio de Trento, de las que no resultó impedimento, enterado del consentimiento gradual de los interesados de los contrayentes, y de que habiendo sido aprobados en doctrina cristiana, recibieron los santos sacramentos de penitencia y comunión, yo, el infrascrito Vicario de la Parroquial de San Millan de esta villa de Cizurquil, asistí al matrimonio que, por palabras de presente y como lo manda la Santa Madre Iglesia, contrajeron Pedro José de Elícegui, soltero, natural y residente de Asteasu, hijo legítimo de José*

Santiago, natural de Larraul y residente en ésta, y de Josefa Ramona de Maíz, natural de Soravilla, ya difunta, y Joaquina Antonia de Bengoechea, también soltera, natural y residente de ésta, hija legítima de José Antonio y de Josefa Ignacia de Lasa, naturales y residentes de ésta. Fueron testigos José Lorenzo de Zabala y José Ignacio de Tejería, naturales y residentes de ésta, y otros varios. En fe de ello firmé. Dn. Ramón Buenaventura de Atorrasagasti." (Zizurkilgo eliz liburuak).

- ¹⁹ Pelloren emaztea, Joakina Antonia Bengoetxea Lasa, Zizurkilen jaiotzen 1840ko apirilaren 14an, goizeko lauretan, Galardi baserrian. Eta 1897ko maiatzaren 4an hil zen Asteasuko Goikoerrotan, goizeko hiru eta erdietan, *tuberculosis pulmonar* gaitzarekin. (Zizurkilgo eta Asteasuko eliz liburuak).
- ²⁰ Hirurogeita bost bertso dira, eta Altzoko Imazek jarri zituen.
- ²¹ 1901eko agorraren 16. eguna eta arratsaldeko bostak ziren.
- ²² Oiartzungo Lexotik, gaurko Lexoti bertsolariaren aitona, Pelloren bertsoa beste kantatua aditu zuenean, beste bertso honekin erantzun zion:

*Auxen eskatu digu
ezagun danari:
errosariyotxo bat
errezatu neri...
Nik kunplituko diyot
pozik gogu ori,
zeruan gerta dedin
Pello Errotari.*

Manuel Lekuona: *La Poesía Popular Vasca*, Quinto Congreso de Estudios Vascos, Bergara, 1930.

- ²³ Alaba Mikelak Ama Birjina Kandelariokoaren egunean, otsailaren 2an, hil zela esaten du. Asteasuko eliz paperak, berriz, otsailaren 3an, 1919an, zahardadez hil zela dio. Baina ez dago hemen askatu ezineko korapilorik. Goizeko ordu bietan hil zela dio eliz paperak. Gau hartan, hain zuzen, ez zen inor ere etxe hartan ohera joango; eta, esate baterako, Kandelario eguna pasa gabea zen haiantzat.

Eliz paperak honela dio: *"En la villa de Asteasu, provincia de Guipúzcoa, diócesis de Vitoria, a tres de Febrero de mil novecientos diez y nueve, yo, el infrascrito cura ecónomo de la Iglesia parroquial de San Pedro Apóstol de esta villa, mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de D. Pedro Elícegui y Maíz, hijo legítimo de D. José Santiago y de Doña Josefa Ramona, natural de esta villa, de setenta y ocho años de edad. Falleció, según certificación facultativa, a las dos de la mañana del día de hoy, en la casa denominada Goico-errota de esta parroquia, a consecuencia de debilidad senil. En el acto del fallecimiento*

se hallaba viudo de Doña Joaquina Bengoechea, natural que fue de Cizúrquil, provincia de Guipúzcoa. No otorgó testamento. Recibió los santos Sacramentos de Penitencia, Viático y Extrema Unción, administrados por el cura ecónomo. Se le hizo el oficio de sepultura y ha sido inhumado en el cementerio de esta villa en presencia de los testigos, D. Agapito Zubeldía y D. Roque Machain, de esta vecindad. En fe de lo cual lo firmo, fecha ut supra. Lorenzo Azpiazu". (Asteasuko elizako bosgarren heriotza-liburua, 219. orria).

- ²⁴ Elizondon euskal festak 1879ko uztailaren 25, 26, 27 eta 28an izan ziren. Herriko festetan, beraz, santiagotan.

Aurretik honela gaztigatu zen bertsolari-saioa: *"Elcargok emanen du 80 pezetaco saria Biltzar batec berechico duen gaiaren gañean cantuz bertso obrenac egiten dituzten bi bertsolariet". "Elizondoco Bestac", Iruñea, 1879ko maiatzaren 1a, (programa), "Revista Euskara", 2. urtea, Iruñea, 1879, 151. orria.*

Oso festa ederrak izan ziren: euskal idazleentzat sariak, pilota-partidak, euskal dantzak... Jendea erruz, Iparragirre ere han zen.

Jose Bernardo eta Pello Errota aritu ziren bertsotan. Haien lana honela juzgatua izan zen:

"A las tres de la tarde se celebró, en la plaza pública, el certamen de versolaris o improvisadores, tomando parte en él José Bernardo Otaño y Pedro José Elicegui, de Cizurquil y Asteasu, en Guipúzcoa, respectivamente, a los cuales se adjudicó por mitad el premio de 80 pesetas, entregándoles además una cantidad de consideración que reunieron algunos aficionados.

Otaño y Elicegui improvisaron durante horas, con una rapidez, una oportunidad y una perfección notabilísimas, en diferentes metros, siendo este espectáculo, tan genuinamente euskaro, el que más agradó al público y más sorprendió a los que hasta entonces no lo habían presenciado, pues es verdaderamente admirable el ver a unos hombres sin instrucción alguna literaria, rudos y dedicados a oficios mecánicos, versificar correctamente y emitir conceptos poéticos, satíricos o profundamente filosóficos con la misma o mayor facilidad con que en otros países se habla en la prosa más vulgar. Otaño y Elicegui no son una rara excepción en la Euskalherria, donde se encuentran innumerables improvisadores en aldeas, caseríos y montañas; pero su facilidad es asombrosa y así lo comprendió la inmensa muchedumbre que les escuchaba, prodigándoles entusiastas aplausos y aclamaciones".

"Las Fiestas de la Asociación Euskara en Elizondo", "Revista Euskara", II. urtea, Iruñea, 1879, 232. or.

"Los versolaris guipuzcoanos Pedro Elicegui, Asteasuco errotaria, y Bernardo Otaño, de Cizurquil, que concurrieron a las fiestas de Elizondo, han hecho verdadero furor en aquel valle, donde va desapareciendo la raza de los improvisadores en lengua vascongada. Así es que, no solo alcanzó el premio de las 80 pesetas, anunciado por la Asociación euskara, sino que se les hizo

cantar en el Casino, en la plaza y en buen número de casas particulares, obteniendo en todas partes grandes aplausos. Los versolaris han regresado a sus casas justamente orgullosos de su triunfo". (Donostiako El Urumea egunkaria, 1879-8-3).

- ²⁵ Laurkin Aiako bailara bat da. Juan Jose Ugarte, berriz, oso bertsolari ona izan omen zen.
- ²⁶ Eibarko Juan San Martinek:

*Sei baso atera eta
sei traganustu,
beste sei erateko
iñor biar eztu;
erango luke baña
pagatzia aztu,
olan tabernaria
nola aberastu?*

